



ARGIA

FRANKFURTEKO LIBURU AZOKA
**Euskal idazleak nazioartean,
Espainiatik eta Frantziatik harago?**

24-29. orrialdeak

#2.799 | 2022/11/06 | 4,00 €



“EHn ez da espero atzerritarak euskaraz egitea”

14 | NATALIA EVSEEVA



Dolu perinatala: aitortza aldarri

30 | HERIOTZA



**Goiatz Labandibar
‘Amez’ liburuaz**

42 | KULTURA

2023 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Baratzea • Fruitu baratzea • Lore baratzea • Basoa

Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga

Noiz eta zer lan egin landareekin?

Agenda honetan dauzkagu
ilargiaren araberako
urte guztiko lanak.

Egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartu

Landareekin egiten ditugun
lanak jaso eta ikasteaz gain,
agendan idatziko ditugu
bakoitzak gure bizitzako
hitzorduak, gogoan hartu
beharrekoak eta gainerakoak.

 **ARGIA**
BIZI BARATZEA

14€

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik
gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez
ordaindu daitezke.

Neurria: 165 x 225 mm
220 orrialde
Espirala darama

Eskuratzeko:
argia.eus/azoka
(+34) 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **AGENCJA FOTOGRAFICZNA CARO**

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | ENEKO GORRI
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | AHOZTAR ZELAIETA

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



HAIZEA PASTOR

52 | OIHANE PEREA

elkarrizketatu du Izar Mendigurenek. Arabako bi bertsolariak aritu dira lurralde honetan euskarak eta bertsoak izan duen bilakaeraz, aurrera begira oholtza gainean jarraitzeko dituen ilusioez eta klimaterioaren bueltan abiatu duten saio bereziak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

"Harresi berde handia" Afrikan

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | NATALIA EVSEVA

"Hemen ez da espero atzerritarrak euskaraz egitea"

Miel Anjel Elustondo

24 | KULTURA | FRANKFURTEKO AZOKA

Mundu oso bat euskal liburuen aurrean

Patxi Gaztelumendi

30 | GIZARTEA | DOLU PERINATALA

Izan zirentzako leku bat

Jone Gartzia

34 | GIZARTEA | INÉS HERNAND

"Umorean gure espazioa sortu dugu"

Saioa Baleztena

42 | KULTURA | GOIATZ LABANDIBAR

"Batuetan ausardia falta dugu euskal kulturaren"

Gorka Bereziartua

46 | KULTURA | BTN2022

Garaziko saiotik elkarrizketa

Elixabet Etxandi

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



“Gure” lorategia

“Europa lorategia da eta munduaren gainerakoa oihana; lorezainek oihanera joan behar dute, bestela, inbaditu egingo gaitu”, zioen duela bi aste EBko diplomaziaburu Josep Borrellek. Ukrainako gerrak aitzakia ezin hobea eman die Europako agintariei krisi anizkoitzaren kostuak langile klasearen gain jartzeko. Bizitzaren garestitze orokorrarekin bat, Borrellen moduko diskurtso eurozentrista eta arrazistak azaleratzen diren bitartean, hondamendira eraman gaitzakeen eskalada militarista hauspotzen jarraitzen dute. EBko potentzia ekonomikorik handienak onartu du Alemania “berrarmatzeko planik” handiena Bigarren Mundu Gerraz geroztik: 100.000 milioi euroko funtsa. Bakearen aldeko Delàs Ikerketa Zentroaren datuen arabera, Espainiako Estatuan 2023rako benetako gastu militarra –Defentsa Ministerioaren aurrekontua gehi beste kartera batzuetan banatutako izaera militarreko gainerako diru partidak– 27.617 milioi eurokoa izango da. Eguneko 75,7 milioi. ‘Gure’ lorategia, plastikozkoa da eta alfa arrez betea.

 Alemaniako Armadako Indar Berezieta soldadu bat pasa den asteko erakustaldi batean Calw hirian.

THOMAS LOHNES / GETTY IMAGES

 AXIER LOPEZ



Hezkuntza Legearen puntu beroak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikasleak, gurasoak, euskalgintza, sindikatuak... Kritiko direnak eta mobilizazioak pilatzen ari zaizkio EAEko Hezkuntza Legearen aurreproiektuari. Bi arlo dira polemikoenak: sare publiko eta kontzertatuak legean izan behar duten rola; eta euskarak irakaskuntzan izan behar duen pisua.

ZER DA PUBLIKOAK?

Hainbat konpromiso eta betebeharrak betez gero, ikastetxe guztiek, eskola publiko nahiz itunpeko, eskubide berak izatea eta zentzu horretan %100eko finantzazio publikoa jasotzea. Funtsean hori da legeak sortuko duen Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren helburua. Formula benetan eraginkorra izan dadin, zerbitzu horren baitan dauden ikastetxeen betebeharrak –eta konpromiso horiek betetzen dituztela ziurtatzeko mekanismoak– zehaztu behar direla aldarrikatu du Hezkuntza Plazara plataformak.

Harago jo dute beste eragile batzuek eta formulak zuzenean gaur egungo “hezkuntza eredu duala” betikotzen duela diote, legeak sare publikoa lehentzi behar lukeela. Legeak “sare publiko bakar, euskaldun eta propioa” lortzeko urratsak eman behar dituela uste dute STEILAS, LAB eta ELAK, eta horretarako formula beste bat dela: ikastetxeen publikifikazio “prozesu sendoak” ezartzea, titulartasun pribatua duten ikastetxeak sare publikoan integratu daitezkeen.

Iritzi berekoak dira, besteak beste, Euskal Eskola Publikoaz Harro platafor-

ma eta Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte (EHIGE). Zerbitzu Publikoa delakoaren bidez, itunpeko ikastetxeak legearen markoan sartzea –gaur egun itun bidez funtzionatzen dute eskola kontzertatuak– eta “egungo eredu duala blindatzea” dakarrela salatu du EHIGEk. Aldiz, publikotasuna titulartasunari lotzea akatsa dela esana du Ikastolen Elkarteak, publikotasuna zerk ahalbidetzen duen zehaztu eta publikotasunaren oinarri, balore eta konpromisoak betetzen dituen ikastetxeak lege barruan egoteko eskubidea duela.

Ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa ez dadila izan aitzakia euskara gutxiago duten inguruetan euskara gutxiago irakasteko

Gatazka ez da berria: egungo sistema dualak ikasleen artean segregazioa bultzatzen duela salatzen du eragile ugari, premia bereziko ikasle gehien sare publikoak hartzen duela, eta hori gainditzeko –eta ikasleen sarbidean oreka mantentzeko– eskatu dute legeak kontrol mekanismo zorrotzak jarri behar dizkiola sare kontzertatuari, matrikulazio bulego bakarra jarri behar duela.

B2 MAILA... NOLA?

Legean euskarak duen presentzia ere kezka iturri da, bai aurreko puntuak aipaturiko eragile guztien aldetik, bai Euskalgintzaren Kontseilua, HEIZE, Hik Hasi eta Ikastolen Elkartearen aldetik ere, besteak beste. Derrigorrezko ibilbide akademikoa bukatzean ikasleek euskaraz B2 maila lortu behar dutela zehaztua du lege aurreproiektuak, “baina ez dago helburua betetzeko ez bide, ez baliabiderik”, salatu du Hezkuntza Plazarak. Ikasleak benetan euskalduntzeko, murgiltze eredu orokortua eta bakarra behar da ikastetxe guztietarako, eta A eta B ereduak desagerrarazi. Gizarteko esparru zabal baten aspaldiko eskaera da, eta legeak esplizituki jaso dezala nahi dute.

Aurreproiektuak jasotzen du ikastetxearen hizkuntza proiektua egiterakoan aintzat hartu behar dela ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa, eta kezka adierazi dute eragileek: testuinguru soziolinguistikoa ez dadila izan aitzakia euskara gutxiago duten inguruetan euskara gutxiago eskatzeko/irakasteko, alderantziz baizik: konpentsatu egin behar du eskolak, “euskara gutxiago duenari euskara gehiago eman”.

Ingelesa eta gaztelania kontuan hartuko dituen eredu eleanitza sustatuz, legeak euskarari kalte egiten diola dio Mikel Basabe irakasleak: “D ereduko gure ikasleek euskara-ordu gutxiago jasoko dituzte orain baino”.

GREBAK ETA MOBILIZAZIOAK

Kritika gehiago ere egin zaizkio lege aurreproiektuari, baina zalantzarik gabe aipaturiko puntuak dira desadostasun handien piztu dutenak. Pasa den astean, greba eta hainbat manifestazio egin ditu Ikasle Abertzaleak antolakundeak, eta protestarako deialdian leku nabarmendua du EAEko Hezkuntza Legeak. Azaroaren 5ean, “Hezkuntza publikoaren alde. Hezkuntza Lege honi, ez!” lelopean manifestazioa deitu du Bilbon Euskal Eskola Publikoaz Harro Topaguneak. Eta bi greba egun (azaroaren 30ean eta abenduaren 14an) deitu dituzte sindikatuak hezkuntza publikoan, “Publikoa, euskalduna eta propioa helburu” lelopean. ●



Legea abiatzeko akordioa lortu zuten martxoan EAJ, PSE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IUK.

MATERIALISMO HISTERIKOA

Langileen eskubideak



UXUE APAOLAZA LARREA

Immigrazio masiboaren eta ondorengo erregularizazioaren ondorioz, lan baldintzak galtzeko prest ez dauden langileen lekua hartzen dute, etsita, edozein lan ontzat jotzen duten immigrantek. Horrek Europako identitatea eta lorpen sozial eta laboralak suntsituko ditu". Mafiek dakarten immigrazioak, hain zuzen ere.

Hemengo langileen eskubideen defentsa bat da, itxuraz. Entzun dugu, eta entzuten ari gara kezka hori. Kezka horrek libratzen omen du ezkertiarra arrazista izatetik. Baina argi genuen, kapitalismoan, batzuen aberastasuna besteen pobrezia kontura eratzen zela, pilatzen zela, ez? Berdin esan daiteke besteon eskubideak ere, agian, pobrezia batzuei esker lortu direla. Izan ere, batzuetan, gure eskubideak ez dira, aberatsei beren irabaziak murriztu gabe, bake sozialaren irabaziak gehituta, aberastasun horren apurtxoak baino. Alegia, gure lan eskubide kaxkarrak ez ditu pobreak erabakitzen, aberastasuna banatu nahi ez duen boteretsuak baino. Baina ari gara apur horiengatik borrokan. Are gehiago orain eskubideak eta kontsumo gaitasuna nahastu zaizkigun honetan. Kontsumo mota horrek sortzen dituen drama guztiekin.

Vox ultrasindikatua da (hitz politez esanda). Voxek sindikatu bat du. Sindikatuaren izena *Solidaridad* da, eta langileen eskubideak defendatzeko itxura egiten du. Goiko hori esan zuten auzitegi gorenean atzerritarren legearen aldaketaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zutenean.

Inoiz ez da ideia ona norbere eskubideak defendatzeko, norbere aberastasuntxoaren biktima egin denari hortzak erakustea. "Italiak ez die utziko atzerriko GKE-ei etorkinak porturatzen". Azkenean, bakoitza non itoko den erabakitzen amai dezakegu. Edo itoko dena beste pobrea izan dadila aldarrikatzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Langile borroka

52.000 langileri eragiten dien hiru eguneko greba deitu zuten sindikatuek Bizkaiko metalgintzako sektorean, joan den asterako. Azken negoziazio prozesuan patronalarekin akordiorik ez zen izan eta ondorioz mobilizaziora jo dute langileen ordezkariak.

Suteak

Bi sute piztu ziren Bizkaian, joan den astean: bata Peñas Negras mendian; Trapagarango Zugaztieta auzora, Ortuellara eta Galdamesera iritsi zen. Bestea Berango eta Unbe artean. Suhiltzaileak suteak amatatzeko lanetan ziren astekari hau ixteko unean.

Pobrezia

Gasteizko Alde Zaharreko etxe abandonatu batean bikote bat bizi da, hiru alabekin. Udalak ez ditu erroldatu eta, beraz, oinarritzko baliabiderik ezin dute eskuratu. Legearen kontra, Udalak ur-hornidurarik gabe utzi dituela ere salatu du Auzoan Bizi elkarteak.

Ikusezinak



ULA IRURETAGOIENA

Arkitektura modernoan X izpien aurkikuntzak eragin handia izan zuen, kontatu du Beatriz Colomina arkitekto eta Princeton-eko akademiakoak Donostiako Tabakalerara berriki egin duen bisitaldian. Medikuntza eta arkitekturaren arteko lotura agertzen du kontakizun konkretu honek, betidanik oso gertu izan direlako, medikuntzak espazioen bizigarritasunerako egindako eskakizunak –aireztapena, argitasun naturala– diseinuaren garapenean gako izan baitira. X izpiak lehenengoz gizarteratu zirenean, teknologia berriak lortzen zuen irudia, hezurdura eta hezurren inguruko orban lainotsu misteriotsuak osatua, erakargarri suertatu zen garaiko gizartearentzat eta bere erabilera orokortu egin zen, edonon egin zenezakeen zure eskuaren erradiografia bat, egun argazki bat egiten dugun tankeran –aurrerago jakin zen X izpiek sortu dezaketen kaltea gorputzean–.

X izpiek sortu zuten gorputzaren erakusketa erradikalak lilura kontzeptualagoa ekarri zuen arkitekturara. Teknologiarekin bitartez, ordura arte intimo, ikusezin eta oso pribatu ziren gorputz barneko organoak publiko bilakatu ziren. Eraikinak pribatutasunaren eremua defendatzeko gailuak izan direnez, eraikinaren barnealdea denon begietara jartzeko aukera iraultza handia zen. Eraikinak, gardenak ziren paretekin, X izpien efektua lortzeko grinarekin hasi ziren planteatzen. Barnealdera begiratzeko desioa lehertu zen, den-dena besteen begietara erakusteraino. Eta orduantxe eraiki ziren historiako lehen “etxe gardenak”, intimoaren erretratu gisara. Etxearen barnealdea arrotzaren bistara irekita azaltzen zen, erradiografia bat imitatu. Bestelako eraikinetan, hezurdura eta azalaren metafora erabiltzen hasi ziren, barnealdea kanpoaldearen parte eginaz.

Zientziak frogaren ikusgaitasuna babestu eta gure pentsamendua zientziaren logosak antolatzen duen bitartean, ikusezinak misterio handia piztuko du eta ikusezinak ikusgarriaren dimentsioa hartzean iraulketa sortzen jarraituko du. ●



Birziklatu, arren

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Itsaso erdian zulaturiko txalupa bat, eta barruan pertsona bat, kubo bat eskutan hartuta ontzira sartzen ari den ura berriz itsasoratzeko ahaleginean, ekidinezina begiztatzen den urperatzearen aurrean ur azalean mantentzeko ahalegin desesperatuan. Irudi hori erreproduzitzen da nire baitan arazo jakin baten aurrean muinera ez doan konponbidea proposatzen denean. Bereziki, egiturazko arazoentzat aterabide indibidualak proposatzen direnean.

Krisi ekologikoaren harira ere maiz erreproduzitu dudana irudia da. Zeren produkzio eta kontsumo eredu kapitalistak eragindako desmasiaren aurrean ere joera nagusitua da arreta norbanakoongan jartzea, zenbait eskakizun helarazteko: kontsumo arduratsua egitea, birziklatzea... pentsa, konpainian dutzatzea ere iradoki zaigu. Horren ondoan, eredu kapitalista zalantzan jartzea eta ortzi-muga bizigarriak irudikatzea ez da joera hain usatua. Eta ez gaizki ulertu, honekin ez naiz esaten ari zenbait ohitura moldatzea eta heldu den kolapsoaren erroa borrokatzea bateraezinak direnik, bide bat ala beste aukeratu behar denik. Baina nola esan: autoa elkarbanatzeak ez gaitu amildegian behera erortzetik libratuko, kapitalismoa gainditzeko estrategiarik eta alternatibarik ez badaramagu *guanteran*. Maila indibidualen egindako aldaketetara mugatuz gero amiltzera kondenatuta geundeke.

“Klase borrokarik gabeko ekologismoa lorezaintza da”. Chico Mendes militante brasildarraren hitzak gogora ekartzekoak dira. Izan ere, krisi ekologikoa guztion ardura izanik ere, ez da guztiona –ez behintzat hein berean– egoera honetara iritsi izanaren erantzukizuna. WFF Munduko Natura Funtzaren arabera, Mendebaldeko herrialdeetan Hegoaldekoetan baino nabarmen handiagoa da biztanleko aztarna ekologikoa, eta herrialde bakoitzean ere, klase sozialaren arabera ez dute berdin kutsatzen batzuek eta besteek. Oxfam-Intermonek egindako ikerketaren arabera, populazioaren %1 aberatsena karbono emisioen %15aren erantzule da, eta biztanleriaren %50 pobreenak baino bi aldiz gehiago kutsatzen du.

Eta hala gabiltza. Hondamendi erabatekora bidea gelditu asmoz ontziratu gabeko elikagaiak erosten dihardugun bitartean, Lufthansak bidaiaririk gabeko milaka hegaldi gauzatu ditzake hegan egiteko duen ordutegia ez galtzeko, adibidez. Orogen gainetik, ez dadila kapitalaren zirkulazioa eta gutxiengoaren irabazien metaketa eten. Zerbait aldatzekotan, bada, izango da auzi ekologikoa borroka antikapitalistaren eskutik doalako. Gainontzean, segiko dugu metodikoki bereizten organikoaren eta errefusaren artean, papera eta plastikoaren artean, baina hain da apetatsua kapitalismoaren logika, edozein unetan esfortzu guztiak hutseratu ditzakeela. Adibidez, interes inperialistak tarteko 1.200 kilometroko luzeradun gas-hodieie eraso eginez eta milaka tona metano isuriz atmosferara, AEBek egin bezala. Ez dakit zuei, baina neroni nahiko inozo aurpegia geratzen zait Itsaso Baltikoak metano-jacuzzia dirudien bitartean birziklatzera osteratzen egiten dudanean. ●

200

euro garestituko da hilero hipoteka, batez beste, hipoteka aldagarria dutenen kasuan. Europako Banku Zentralak interes-tipoak %2 igotzea erabaki du eta Euriborra urte hasieran -%0,5ean egotetik igaro da %2,6ra.



“Lagun aristokratak ditut, klase altukoak, langile klasekoak... beno, langile klasekorik ez”

RISHI SHUNAK

Erresuma Batuko lehen ministro berria herrialdeko aberatsenetako bat da. 2001eko adierazpen horiek biralizatu diren honetan azaldu du ikaslea zela eta “txorakeria” bat esan zuela.

BBC (2001)

890 milioi

euro banatuko ditu Iberdrolak dibidendutan, etekinen errekorra gaingituta. Iaz baino %29 gehiago irabazi du urteko lehen 9 hilabetetan. Aurreikuspenen arabera 4.200 milioi euroko etekinak izango ditu 2022an.

“HAUR INTERSEXUAL UGARIK MUTILAZIO GENITALA JASATEN DU. OSO LARRIA DA HORI”

IOLANDA MELERO

LGTBI+ aktibista.

DIRECTA (2022-10-26)

1,7 milioi

musuko blokeatzen ditu biltegi batean Nafarroako enpresarien elkarteak. Gubernutik diote ezin dituztela musuko horiek erabili, enpresarien elkartearen izenean daudelako eta hark ez duelako baimenik ematen.

“Erronka demografikoaren aurrean, laneko immigrazioa sustatu behar da. Senegalen formaziorako eskola-tailerrak sortu beharko genituzke”

PASCAL GÓMEZ

Confebask EAEko enpresarien konfederazioaren barruan dagoen Arabako patronalaren burua.

2022-10-24



Astebetez, euskarazko ikus-entzunezkoak baino ez

ERREDAKZIOA

Pantailak Euskaraz elkarteak sortu du ekimena, pantailetatik jasotzen dugunak hizkuntza ohituretan “zuzeneko eragina” duela ulertuta. Astebetez, azaroaren 11tik 18ra, euskarazko ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta horretarako dauden zailtasunez ohartarazteko xedea dute.

Euskaraldiaren atarian egingo dute Pantailaldia, “Euskal Herri mailako halako ekimenarekin sinergiak aprobetxatuz”. Dagoeneko parte hartzeko izena eman daiteke Pantailak Euskaraz-en webgunean.

Euskararen egoeraren hainbat datuk kezka zabaldu du azkenaldian: Soziolinguistik Klusterraren 2021eko kale erabileraren neurketen arabera, Euskal Herrian zortzi lagunetik batek egiten du euskaraz, 2006an baino 1,1 puntu gutxiago. Pantailak Euskaraz taldearen iritziz, pantailetan kontsumitzen dugunak eragin zuzena du hizkuntza ohituretan. Horregatik, Pantailaldiko astebeteak ikus-entzunezkoen kontsumo joera aldaketa bat bultzatzea da zuzena.

Inoiz baino baliabide gehiago dagoela dirudien honetan, ordea, Pantailaldiaren beste helburu bat da euskarazko edukia jasotzeko dauden zailtasunez ohartzea eta, hala, ikusaraztea erakundeen aldetik neurri gehiago eta eraginkorrak behar direla. UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak orain gutxi azaleratutako ikerketa baten arabera, Euskal Herrian euskarazko ikus-entzunezko edukiek presentzia oso urria dute, bai gazteen artean baita haurren ere.

Bost lagunek konpromiso berezia hartu dute, Hego Euskal Herriko lurralde bakoitzeko batek eta Ipar Euskal Herriko beste batek: beren esperientzia aktiboki partekatuko dute sareetan eta tokiko hedabideetan.

Dinamikaren bueltan jarduera gehiago ere egingo dituztela jakinarazi du Pantailak Euskaraz-ek; hala nola, azaroaren 13an protesta bat egingo dute, euskaldunek zinemetan bizi duten “diskriminazioa” salatzen. ●

NAZIOARTEA



SHADI JARARAH / APA IMAGES

Zer ari da gertatzen Zisjordanian?

AXIER LOPEZ

Zer gertatzen ari da Zisjordanian okupatuan eta Jerusalem, eta zergatik? Azken asteotan gehien errepikatu den galderetako bat da egoera ikusirik: 5.292 palestinar baino gehiago atxilotu dituzte urtarrietik (%14 adingabeak), Palestinako Presoen Elkartearen arabera. 2022an, Israelen etengabeko sarekadetan 165 palestinar baino gehiago hil dituzte, eta horietatik 115 Zisjordanian.

Israelek nabarmen areagotu du palestinaren aurkako errepresio sistematikoa Zisjordanian. Baina bada sionismoaren azken errepresio olde hau bereizten duen faktore garrantzitsu bat: talde armatu palestinar klasikoei aurre egiteaz gain –ez baitiote uko egin konfrontazioari–, orain ere erresistentzia talde armatu berriak izan dituzte aurrean. Aipagarrienak: Nablus-en sortutako Areen Al-Aswad (Lehoien Gordelekua) –Palestinatar Aginte Nazionalaren (PAN) segurtasun indarrak Hiri Zaharretik kanporatu zituen–, Zisjordanian errefuxiatu gunerik handiena den Balatan eratu duten batailoia eta erresistentzia historia luzea duen Jenin hirian antolatutako brigadak. Talde berri horiek mutil gazteek osatzen dituzte eta Palestinako erakunde historikotatik kanpo daude antolatuta.

Are gehiago, Yvonne Ridley kazetariak dioten bezala, gazte hauek sentitzen dute ez dutela ezer galtzeko israeldarren okupazioaren basakeria-

ren eta PANeko agintari ustelen aurka oldartzen badira. Izan ere, Palestina-ko belaunaldi berrietan gero eta nabarmenagoa da PANekiko aldentzea. PANeko agente-egituretan aldaketa handirik ez da izan azken hamarkadetan, eta ez du presidentetzarako eta parlamenturako hauteskunderik egin 2005etik eta 2006tik. “Gazteen erreakzioak agerian utzi du Palestinako proiektu nazionalaren eta bi estaturen konponbidearen porrotak eragindako frustrazioa; gero eta kezka handiagoa da autogobernu-erakundearekiko eta Fatah alderdi ofizialistarekiko, askok ustelak, autoritarioak eta Israelen interesen zerbitzaritzat jotzen baitituzte”, Palestinako Medikus Sorospenerako Elkartearen Nabluseko koordinatzaile Ghassan Hamdanen hitzetan. Ez dira gutxi diotenak Israelek Zisjordanian duen kontrola PANek emandako erraztasunei esker dela neurri handi batean; ekintzaileak zelatatzen, seinalatzen, atxilotzeko eta palestinaren konpromiso politikoa askapenaren diskurtso-rik urrun bideratzeko.

Irtenbide klasikoak kale itsuan daude (Osloko akordioak, bi estatuen irtenbidea, PANen ustezko autonomia, Israelgo apartheid-aren nazioarteko presioa...) eta ez dira nahikoa Palestinako belaunaldi berrientzat, egunero Israelgo kolonialismoa nola hedatu eta normalizatzen den ikusi bitartean. Palestinako askapen prozesuan zerbait ari da mugitzen. ●

Azken dolu egunean, Aminiren hilobira

📷 JILA MOSTAJER

KURDISTAN / 40. dolu eguna etaparen azkena da kultura kurduan. Urriaren 26an, Irango poliziak Mahsa Amini hil zuenetik 40 egun bete ziren egunean, eta milaka lagun bildu ziren bere jaioterrian, Kurdistango Saquez hirian, omenaldia eskaintzeko eta agintarien krimenak salatuzko. Irango Gobernuak hirirako bidea itxi zuen, eta segurtasun indarrak gogortu, baina horrek ez zuen jendea kikildu: milaka lagunek errepidetik oinez egin zuten hilerrirako bidea.



Jazarpena

Turkiako Poliziak bi hedabide kurdutako hamaika kazetari atxilotu zituen joan den astean. Duela hiru aste onartu zuen parlamentuak Zentsura Legea, eta kazetari elkarteek salatu dute adierazpen askatasuna zigortzeko baliatzen ari dela gobernuak.

Zentsura

EITBn aplikatzen den “zentsura” salatu du taldeko enpresa batzordeak. Faktoria programatik ezabatutako Maddalen Arzallusen bertsoak izan dituzte hizpide eta hedabideak “irizpide politikoaren eta ideologikoaren arabera” funtzionatzen duela kritikatu dute.

Espekulazioa

Ipar Euskal Herriko laborantzak 930 hektarea galdu ditu urte bakarrean. SAFER egiturak plazaratu ditu 2021eko datuak. “Diruaren boterea” laborantzaren “minbizia” dela salatu du Ipar Euskal Herriko batzar teknikoaren presidente Jean-Claude Saint-Jeanek.

'HARRESI BERDE HANDIA', AFRIKAN: ATERABIDEAK HANDIZKI IRUDIKATU DITZAKEGUNAREN FROGA

Saraharako basamortua hedatuz doa denboran, mende oro %10 zabalduz. Zabalpen hori geldiarazteko abiatu zuten duela hamabost urte proiektu erraldoi bat: mendebaldeko Senegal eta Mauritaniatik haste ekialdeko Eritrea eta Somaliara arte, baratze, belardi, zuhaitz eta oihanez osaturiko hesi berde bat eraikitzea. 2007az geroztik dabilta horretan, baina 18 milioi hektarea lur berdeturik, bakarrik %4 dute osatuta. Orduz geroztik, onura gehiago agertu zaizkie, tartean, klima larrialdia arintzeko soluzio ere izatea. Baina erronka berriak ere badituzte, horietan potoloena ondokoa: multinazionalen goseari aurre egin eta afrikarren eskutan mantentzea lur horiek.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Klima larrialdiari gaina hartzeak gure jendarte antolaketa aldaketan drastikoa eta sistemikoa eskatzen digun honetan, egingarritasunari buruz esperantza ematen digun adibidea dugu Afrikako Sahel eskualdean QQosatzten dabilta "Harresi Berde Handia". Atlantikotik Itsaso Gorrira arte, Senegal, Mauritania, Mali, Burkina Faso, Niger, Nigeria, Txad, Sudan, Eritrea, Etiopia eta Djibuti herriak trabeskatuko dituen baso, belardi eta baratze osaturiko hesi naturala landatzen dabilta. Orotara, 8.000 kilometroko luzera eta 15 kilometroko zabalera ukanen duen hesi begetal horrekin Sahara basamortuaren hedapena oztopatzea dute xede. Egitasmo erraldoia -100 milioi hektarea berdetzea-, hamaika herri batzen dituen eta bioaniztasuna berreskuratzean daukana funtsa. Hots, horixe: nahi bada ahal da.

"Basamortutzea urritzeko proiektua da. Oinarrian hori dago, baina oroz gainera afrikarrek afrikarentzat pentsaturiko egitasmoa dugu. Sektore anitz hunkitzen ditu: badago berrezartze ekologikoarena, baina aldi berean, lurraldeen garapenaz ere ari gara. Baratzeak, erlezaintza, lasto bilketak... elkarrengandik paraleloak direla pentsatu dezakegu, baina errealtatean guztiak dira ezinbestekoak Harresi Berde Handiaren iraunkortasunarentzat. Herriarren inplikazioarik gabe ez luke funtzionatuko.

Proiektu hori osoki afrikarra da, Afrikan sortua. Afrikarentzat", Priscilla Duboz antropologoaren gogoeta entzungai daukagu, *France Culture* irratian.

Basamortutzeak hainbat kausa dauka oinarrian: euriteen gutitzeak ondorioztatu idortek, klima beroketa, baita gizakiaren jarduna ere: "Gizakiak xehatu du bertako ekosistema. Kolonien aroan, laborantza eta abeltzaingoa bultzatu ziren, oreka zahar eta kontsolidatuak desagerraraziz eta baso zabalak suntsituz [hau da, basamortuaren zabalpena oztopatzeko pareta naturala desagerraraziz]. Laboreek, gehienetan multinazionalen monokultura industrialek, areagotzen dute basamortutzea, uraren kontsumo erraldoiagatik eta akuiferoak pozoitzen dituzten osagai kimikoengatik", irakurri daiteke *Entre rêve et espoir: le projet de la Grande Muraille Verte* ("Ametsen eta esperantzen artean: Harresi Berde Handiaren proiektua") artikuluan.

Afrikako Batasunak 2007an ofizializatu zuen egitasmoa, eta orduz geroztik aitzina doa, nahiz eta hainbat traba eta gertaerengatik poliki, seguruenik poliki, doan gauzapena: 2030eko bukatu nahi lukete, baina iaz %4 zuten bakarrik landaturik. Akatsetatik ikasi dute herriarrek eraman beharreko proiektu dela: "Naturarentzat, komunitatearentzat, klimarentzat landatzeak ez ditu baitzpada lotzen herriarrek. Baliagarriak

izanen zaizkien zuhaitzak behar dira, jateko edota saltzeko baliatuko dituzten fruitudunak, adibidez. Kasu horretan funtzionatzen du", Haïdar Ali senegaldarraren hitzetan. Gogoan du iragana, zuhaitzak landatu eta herritarrek moztzen zituzten garai hura.

FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearentzat ere estrategikoa da, eta dirutza bideratzen dabil. Ez delako proiektu tipia pobrezia gehien pairatzen duten herri horientzat: 135 milioi herritar dira Sahel eskualdean, eta laurdena da gosez ala egarriz hiltzen. Batez beste, 440 dolar kontatu behar da hektareako, hots, orotara 36.000 eta 43.000 milioi dolar kostatuko du harresi berdeak. Iraganak irakatsi die herritarrek egon behar direla dirulaguntzen segipen batzordeetan -ustelkeria eta zerga ihesak errealtate dituztelako Sahel eskualdeko gobernuetan ere-. 20.000 milioi dolar jaso behar lituzkete nazioarteko eta kontinenteko egituren partetik.

kasu multinazionalen

Kanpotik etorritako diruaren parean, mesfidati da Haïdar Ali senegaldarra, sosa ez duelako guztia egiten. Arriskua ere ikusten dio: "Baldintza baldin bada enpresa txinatarra inplikaraztea sosa Txinatik datorrelako, ala enpresa frantsesa kontratatzea sosa Frantziak emana delako... barkatu, ez nau interesatzen. Enpresa horiek ez dituzte nire herriaren

PROIEKTU EMANKORRA

basamortuaren hedapena oztopatuz, herritarrei espazio bizigarria bermatzen die Harresi Berde Handiak, tartean gosetearen gaitza ttipituz eta enpleguak sortuz. Nola ez, klima aldaketa ezitzeko soluzio interesgarria ere da.



hersturak eta lehentasunak. Ingurumenak frogatzen digu horrek ez duela funtzionatzen: denetan doa atzeraka, denetan eta denetan”.

Multinazionalen presioari eustea izanen dute erronka nagusienetarikoa. Izan ere, Iparreko enpresak badabiltza Hegoan zuhaitzak landatzen –monokulturaren logika kaltegarrian–, beraien aktibitateen karbono isurketak konpentatzeko gisan. Nazioartera bideraturiko laborantza industriala garatzeko lur emankor gisa ikusiko du gobernu eta enpresa andanak ere. *Entre rêve et espoir: le projet de la Grande Muraille Verte* artikuluan irakurri daiteke arrisku hori ez dela kontuan hartua: “Hil ala bizikoa dute erronka hori: zeinek jasoko du lur horien

jabetza eta kontrola? Harea baratze bilakatzea ez da nahikoa, defenditu beharra dago, eta detaile hori –maleruski– ez da sartzen FAOren proiektuan. Erronka hori hor dago, are gehiago estatuek ez baitute indarrak ezer bermatzeko”.

Hurbiletik zaintzekoa dute, diskretuki bertaratzen dabiltzalako bat baino gehiago: Veolia ala Total dabilta diruz sostengatzen landaketa. Kosmetika arloko Frantziako Klorane enpresa botereitsuak tratua pasaturik du, ordainez *Balanites aegyptiaca* edo basamortuko datilondo osaturiko xanpua merkaturatzeko osagaia jasoz. Agentzia Panafrikarra eta Xinjianeko Ekologia eta Geografia Institutuaren arteko hitzarmena ere hor dugu, “basamortutzea mugatzeko

Txinak dauzkan teknologiak, materialak eta ekoizpenak Afrikara bidaltzeko” izenpetua. Amazon-en jabe Jeff Bezosere 1.000 milioi dolar bideratu berri ditu egitaspora.

Etengabeen bipilduriko Afrikan, beraien jarduerak berdez pintatzeko ala are gehiago aberasteko bide berria dute hor multinazionalak. Hori gertatuz gero, oinarrian dagoen helburua zapuztuko lukete –laborantzan zein basogintzan, monokultura beti delako biziaren suntsiketaren sinonimo, eta basamortuarentzako sarbide–. Klima larrialdiaren parean izan zitekeen harresia ere suntsituko lukete. Alta, berez 250 milioi tona karbono xurgatzeko gaiatsuna dauka harresi berde zabal eta bizi horrek. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Natalia Evseeva

ERRUSIARRA, EUSKARA HIZTUNA



EZ DAKIT ZERGATIK, BAINA HEMEN EZ DA ESPERO ATZERRITARRAK EUSKARAZ EGITEA



Hizkuntzak ikasteko aplikazioak egiten ari da Bilboko lanean, autoikaskuntza-metodoak, finean. Edukiak sortzea eta kudeatzea du lantegi. Errusiera-berezilari hasi zen, eta, orain, errusieraz gain, frantsesez eta alemanez ere sortzen ditu edukiak. Damu bat ere badu: "Ez dut euskararekin lan egiten, zoritxarrez".

 MIEL ANJEL ELUSTONDO  ZALDI ERO

Moskun jaioa, Gasteizen eta Bilbon zaitugu aspaldixko.

Moskun jaioa naiz, baina ez ofizialki, hala ere. Ama gure herritik Moskuko ospitalera joan zen nitaz erditzeko garaian. Nire agirietan ez da Moskurik agertzen, SESBen legea baitzen amaren erroldaren arabera ezartzea haurraren jaiolekua, eta, nirea, hiriburutik 200 kilometrotara dago: Tula.

Hantxe hazi nintzen eta hantxe bizi 18 urte arte. Gero bai, Moskura joan nintzen unibertsitate ikasketak egitera. Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Aplikatua ikasi nuen; konputazionala, alegia. Baina ni oso txarra naiz konputazionalan eta, beraz, alde teorikotik jo nuen.

Hizkuntzalaritzak ekarri zintuen Euskal Herrira?

Bai. Lehen aldiz, 2011n heldu nintzen, unibertsitateen arteko hitzarmen bat tarteko. Erasmus moduko bat, nahiz eta Errusiaren kasuan ikasle-trukearen programak ez duen Erasmus izenik jasotzen. Baina azken finean gauza bera da. Hala ere, han, Erasmusen ez bezala, kanpoan egiten dituzun ikasgaiak ez dira baliokidetzen etxeko unibertsitatean. Eta, bestalde, gastu guztiak, matrikula izan ezik, norik bere gain hartu behar ditu. Nire kasuan, ordurako, urtea neraman euskara ikasten Moskuko unibertsitatean, Etxepare Institutuaren irakurletzaren barruan. Bi erakundeen

arteko akordioa zen. Gaztelania ikasten dutenentzat pentsatuta zegoen, eta ni gaztelania ikaslea ere banintzenez, euskara ikastera joan ahal izan nintzen. Lau hilabete hemengo unibertsitatean ikasteko aukera ere eskaintzen zuen programak, eta etorri nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan Euskal Herriko jendea, bizimodua... Jendeak bere erroei eta kulturari dien atxikimendua. Natura eta klima ere bai, gustatzen zait mendian barna ibiltzea, mendiak asko maite ditut eta nire sorterrria, aldiz, nahiko laua da.

Baina lau hilabeteak pasa eta gero, atzera Moskura zu.

Bai. Eta itzuli eta beste urte bat ere ikasi



Natalia Evseeva

MOSKU, 1989



Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Aplikatua ikasketak Moskun egina, hantxe hasi zen euskaraz ikasten, Etxepare Institutuaren irakurletza baliatuz. Euskal Herrira etorri zen lehenbizi, 2011n; bizitzera, 2012. urtean, eta kasik hamarkada bat darama gure artean, ikasketak burutzen, doktore tesian eta lanean. Hiru artikulu ditu publikatuak, bata tipologiari buruzkoa, eta beste bi Europako estatu post-sobietarreko hizkuntzei buruzkoak.

nuen euskara –karrerako azken urtea nuen Moskun–, delako irakurletza horren barruan beti. Leire Orduña izan nuen lehenbiziko irakaslea, eta, hurrena, berriz, Ainhoa Aierbe. Lehen urtean hiru ikasle izan ginen gure taldean. Ondokoetan, gehiago. Urteren batean hamarretik gora izatera ere heldu ginen. Bizpahiru talde izan ohi ginen, mailaren arabera banatuak. Ni, adibidez, nire azken urtean, 2011-2012an, bakarrik gelditu nintzen nire maila “altuan”. Letren fakultatean ari ginen ikasle guztiok, batzuk hizkuntzalaritza ikasle ginen, beste batzuk Espainiar edota Ingeles filologiakoak, eta baziren unibertsitatekanpoko ikasleak ere. Gero, unibertsitatekoak ez zirenei atek itxi zizkieten. Urte batzuetan zenbait elkarlan egin zituzten Cervantes eta Etxepare institutuek, baina urte batzuetan; beste batzuetan, ez.

Zure hizkuntzalaritzaren barruan ikasi zenuen euskara.

Hautazko gaia zen, ez zuen curriculumean kontatzen –nire garaian, behintzat–, kreditu-sistematik ere ez baitzegoen orduan, zenbait ikasgai jakin derrigorrez ikasi beharra besterik. Garai horretan euskara ez zen norberak hartu nahi zuen karga baizik. Kar, kar... Baina gustura ikasi nuen, batzuetan erraza zen, besteetan zaila, hizkuntza guztien kasuan bezala. Zaila dela esaten dute, eta esan dizut, batzuetan erraza da, beste batzuetan zaila. Hala ere, nire iritziak ez du askorik balio, hizkuntzalaritza ikaslea bainaiz, beste zenbait hizkuntza ere badakizkit... Nire soslaia ez da ohikoa, beraz. Adibidez, euskararen alderdi batzuk oso erregularrak dira: deklinabidea ikasi duzula esaten duzunean, benetan ikasi duzu, erregularra baino erregularragoa delako! Aldiz, errusieraren deklinabidea askoz ere zailagoa da, askoz ere denbora gehiago beharko duzu hura ikasten, salbuespenez beteta baitago, eta zein genero, zein erro mota eta beste hainbat gorabehera hartu beharko baitituzu kontuan.

Hiru urtean ikasi zenuen euskaraz?
Bai. Tira!, hiru urtean erdiko mailara

iritsi nintzen, B1era gutxi gorabehera! Hurrengo 10 urteetan hobetzen aritu nintzen, eta oraindik ere badaukat zer ikasi! Euskara ikasten hasi nintzen lehenbiziko urtea egin eta gero etorri nintzen Gasteiza. Ordurako, nahiko ongi nekien gaztelaniaz. Zenbait eskola jaso nituen [EHUren Gasteizko] Letren fakultatean, gaztelaniaz denak, salbu eta atzerriko ikasleei zuzendutako euskara tartea. Talde txikia ginen, eskola trinkoa zen hura, eta euskaraz gehiago ikasteko balio izan zidan. Lau hilabeteko egonaldi horren barruan aparteko beka bat ere bazen, Etxepare Institutuak emandakoa. Huraxe izan dut bizian jaso dudana beka “normal” bakarra, dena ordaindu baitzidaten, hamabostaldi batean barnetegia batera euskara ikastera joateko. Eta hori ere egin nuen, Lazkaoko Maizpiden. Erabateko murgiltzea izan zen.



Ni ez naiz nor inor kritikatzeko, baina niri dagokidanez, bizi naizen tokiko hizkuntzan hitz egitea gustatzen zait”

Euskara ikasteko leku egokia dugu Maizpide euskaltegia.

Egonaldi hura erabakigarria izan zen. Maizpideko hamabostaldiaren ondoren, erabaki nuen Euskal Herrian denbora luzeago igaro nahi nuela, itzuli egin nahi nuela, hemen eman nahi nituela urte batzuk, baina bizitzen. Karrerako azkeneko urtean izan zen. Tartean, nire bizitzan zer egin ere pentsatzen eman nuen denbora, Moskun gelditu eta lana bilatu, edo Euskal Herrira itzuli eta hemen egin nire bidea. Baina, jakina, errusiarra naizenez ez nuen besterik gabe hona etortzerik, ikasle etortzea beste aukerarik ez nuen, eta masterra egitera etortzea erabaki nuen. Horrela bai, etorri nintekeen. Bestela, ez nukeen hona legez etortzeko modurik, hona sartzekotan familia izan behar baituzu hemen, edo lan kontratua, Errusian zauden bitartean egindakoa! Hau da, ia ezinezkoa. Beste bidea da ikasketak atzerrian egitea, eta horixe egin nuen nik, eta horixe da errusiar askoren plana.

Masterra egiten hasi zinen, hortaz.

Baina konturatu nintzen ez nuela ikasteko gogo handirik, nahiago nuela lan egin, nekatuta nengoela ikasten. Eta, bestalde, hemen ikasle bizitzeak esan nahi zuen gurasoen kontura bizi

beharko nuela. Eta hori ere ez nuen nahi. Azkenean, neure bidea egin nuen, lana aurkitu bainuen. Duela hamar urteko kontuak dira. Hainbat lan txiki egin ditut harrezkero. Errusiera klase partikularrak ematen aritu nintzen bi urtez edo. Asko gozatzten dut nire ama hizkuntza irakasten, baina horretaz bizitzea oso zaila da. Hala ere, esperientzia harexek lagundu zidan oraingo lana lortzen. Bi lan handi ere izan ditut, bata Bilbon – horretan ari naiz oraindik –, Guardian bestea.

Arabako Guardian?

Bai. Urte hartan Logroñon bizi nintzen. Lantegi batentzat egin nuen lan, Errusian saldu nahi zuen bere produktua: ardo, vodka eta gainerakoen botilak itxeko erabiltzen diren kapsulak. Errusiako merkatua zabaldu nahi zuten, eta errusieraz zekien pertsona bat behar zuten harremanetarako. Nire pisukide ohiak baten bat ezagutzen zuen lantegi hartan, eta hantxe *entxufatu* ninduen. Kar, kar... Baina Errusiarekin harremanetan saiatu baginen ere, negozioak ez zuen uzta onik eman, kontratua bukatu zitzaidan, eta kito. Kontratu hura bukatu, eta Gasteiza itzuli nintzen, beste lan bat bilatzeko masterra bukatzen nuen bitartean. Ez zitzaidan ezer ateratzen. Gainera, ikasle paperekin ezin nuen lanaldi osoan lanik egin. Beraz, urte bat-edo errusiera klase partikularrak ematen jardun nuen eta, aldi berean, master amaierako lana idazten. Gero Bilboko lanarekin hasi nintzen, hizkuntzak ikasteko aplikazioetan lanean.

1989an Moskun jaioa, 33 urte dituzu, eta hainbat hara-hona eginak Tulatik honaino: Gasteiz, Bilbo, Guardia...

Bai, zenbait urtetan gauza asko egin ditut, edota gertatu zaizkit, oso urte bete eta trinkoak izan dira. Bestalde, CO-



VID-19 urteak tartean direla, denbora murriztu egin dela iruditzen zait. Aurreko urteak bizi-bizi joan ziren eta, aldez, pandemia urteak, geldo-geldo.

Eta zein puntutan zaude orain?

Mundu akademikoa hor dago beti. Hizkuntzalaritza ikasi nuenean, ikerketa neukan gogoan. Horixe zen nire asmoa. 15 urte nituenean, oso garbi nekien zer izan nahi nuen: ikerlari. Karreran hasi nintzenean, bestelako asmoak etorri zitzaizkidan: ikerketa eginkizun zaila iruditu zitzaidan, desmotibatu egin nintzen. Eta, bestalde, ikertzetik bizitzea ez da erraza, ez hemen ez Errusian. Ez nuen aurrerabiderik ikusten eta, hortaz, bide hura ixtea erabaki nuen, masterra bukatu nuen arren. Pandemiak, berriz, bizitza birpentsatzeko aukera eman dit,

eta doktoregoan eman dut izena EHUren Gasteizko Letren fakultatean, eta horretan naiz denbora erdian. Urtea daramat horrela, baina ez dut askorik aurreratu: ez naiz *superwoman*-a, ez naiz aldi berean gauza bat baino gehiago egiteko gauza, denbora ondo kudeatzen ere ez dakit. Nahiko kaotikoa naiz horretan.

Zergatik lotu zintzaizkion, aukeran, euskara ikasteari?

Bestelako hizkuntza bat ikasi nahi nuelako. Tipologia gustatzen zaidala esan dizut, eta, Moskuko unibertsitatean, georgiera klaseen bila ari nintzela, errazagoa izan zen euskara ikasteko klaseak aurkitzea, georgiera ikastekoak baino. Tira!, hori egotira politikoari ere zor zitzaion, zeren 2008-09 hartan bi herrialdeen arteko harremanak ez zeuden onenean. Orain bestelakoa da egoera, eta georgiera klaseak eta georgiera irakasle partikularrak nahi beste dituzu. Garai hartan ez zen halakorik. Garai hartan, Moskuko uni-

bertsitatean, gure fakultatean, hainbat irakurletza ziren: euskara, katalana, finlandiera...

Irakurletza haien guztien artean, zuk euskara hautatu zenuen...

Bai, aspaldi entzuna nuen hizkuntza misteriotsua zela, arraroa... estereotipo guztiak! Kar, kar... Bazen euskara irakurletza, eta nire departamentuan ere bazen euskara interesatzen zitzaion irakasle bat, Aleksandr Arkhipov. Urte batean, halako ikastaro bat ere eratu zuen, hizkuntzalariei zuzendua, euskararen gramatikari buruz, eta orduantxe hasi zen benetan nire euskara zaletasuna. Euskal Herrira etorri baino lehen izan zen. Gero, graduako lana ere irakasle harekin egin nuen. Euskarari buruzko giroa bazegoela esan nahi dut.

Gure errusiarrak Zuberoaz interesaturik dago...

Bai. Ibilita nago Zuberoan, asko gustatzen zait eskualde hura. Batua ikasi eta gero, beste erronka baten bila nabilela, zuberera ikasten hasi nintzen. Barnetegian izan nintzen, duela hiru urte, eta harrezkero zenbait egonaldi egin ditut han.

Errusiarrak, euskaraz ikasia. Hemen askok ez du halakorik egiten...

Hizkuntzalari frikia naizelako ikasi nuen euskara. Hemen, berriz, jendeak arrazoi praktikoengatik ikasi ohi du euskaraz. Egia esan, Errusian eta Euskal Herrian eta toki guztietan, arrazoi praktikoengatik ikasten ditu jendeak hizkuntzak. Orain ingelesez ikasi behar omen da, eta hor ari zaizkigu tar-tar-tar. Euskal Herrian, askok ez dute ikusten euskaraz ikasteko beharra, lotura emozionalik ere ez dute euskararekin... Ni ez naiz nor inor kritikatzeko, baina niri dagokidanez, bizi naizen tokiko hizkun-

tzan hitz egitea gustatzen zait. Hala ere, ulertzen dut bakarrik beharrezko duen hizkuntza ikasten duen jendea. "Halako egin behar dut diru gehiago irabazteko? Bada, egingo dut. Beharrik ez dudala? Ez dut egingo". Halaxe.

“

Batua ikasi eta gero, beste erronka baten bila nabilela, zuberera ikasten hasi nintzen barnetegian, eta harrezkero zenbait egonaldi egin ditut han”

Eta, laster, Euskaraldia.

Eta jarriko ditugu txapak, eta hitz egingo dugu euskaraz. Tristeza da, jendeak euskaraz ikasten du, baina ez du hitz egiten. Eta, hala ere, euskara Errusiako zenbait hizkuntzarekin alderatu, eta oso egoera onean dago. Errusiako hizkuntza askok euskarak bere eremuan duena baino askoz presentzia txikiagoa dute, toki guztietan ere!, izan eskolan, izan gizartean. Eta transmisioa bera ere, askoz ere eskasagoa da Errusiako hizkuntza askoren kasuan, euskararenean baino.

“Jarriko ditugu txapak”, esan duzu. Eta egingo dugu lehen hitza euskaraz?

Nik nekez egiten dut lehen hitza euskaraz, eremu ez euskaldunetan, bederen; alegia, hiriburuetan, edo aurrean daukadana euskalduna den, ez den, zalan-tza handia daukadanean. Herri euskaldun batean edo giro euskalduna dagoen tokietan, berriz, ezezagunekin ere euskaraz hasteko arazorik ez dut, eta gainera asko gustatzen zait. Bestalde, inora tramiteren bat egitera joan, nire agiriak erakutsi, eta badakit nire izena irakurri eta nik euskaraz hitz egiteak harridura sortuko duela, edo gaizki-ulertua. “Ea, hemen bada okerren bat. Zer ari da izen arraroak dituen neska hau euskaraz?”. Eta, jakina, tramite bat egiten ari zarenean, nahi duzu hura bete eta libre irten. Hargatik kostatzen zait asko lehen hitza euskaraz egitea. Ez dakit zergatik, baina hemen ez da espero atzerritarrak euskaraz egitea. Elkarrizketa egitea eskatu zenidanean ere, horixe pentsatu nuen: “Beste behin, euskaraz ikasi duen atzerritarraren papera jokatu beharko dut!”. Kar, kar...

Horixe zure rola!

Bai. Atzerritarrak euskaraz ikastea ohi-koa balitz, ez ginatkeen hemen egongo! Kar, kar... Batzuetan nekagarria da! ●


Azarokoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

● EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
● BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
● 10 ZENBAKI URTEAN



Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Bartzelonan biziraun



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Hiriko kaleetara itzuli dira koronabirusak atzean utzi zituen turistak. Horrek, agian, 1,6 milioi biztanleko beste hiri batean ez luke garrantziarik izango. Bai ordea Bartzelonan, non aurten jada ia 1,5 milioi bisitari heldu diren itsasoz. Oraindik urrun daude pandemia aurreko bi urteetako bakoitzean izandako hiru milioi portu-bisitariak, baina joera da berriz ere errezeta berarekin tematzea.

Aireportua zabaltzearen inguruko oihartzunak ez dira itzali oraindik, eta Prat ikusminez ari da jarraitzen afera, Ricardako ingurune naturala ken ez diezaioten. Oraingoz, irailera arte ia 31 milioi bidaiari igaro dira bertatik, 2020 konfinatu osoan halako bi baino gehiago, eta kopuru horrek eliteak hauspotzen ditu COVID aurreko 50 milioietara iristeko.

Orain arte iragate- edo zirkulazio-zifrez soilik hitz egin dugu, hemen bizi garenoi arnasa hartzea gero eta gehiago konplikatzen digun zifraz. Urtean 1.300 heriotza saihestuko lirateke OMEren kutsadura-mailak beteko balira. Europako mila hiri aztertu dituen ikerketa baten arabera, nitrogeno-dioxidoak eragindako kutsadurak eragin dezakeen heriotza gehien duen seigarren hiria gara. Ibilgailu pribatuen joan-etorriari egozten zaio hori, baita beste faktore batzuei ere, hala nola energia kutsatzaileen erabilerari, kokapen geografikoari eta portua bezalako azpiegiturei.

Urte hasieran
alokairuaren prezioa
%10 garestitu da (...)
Ez da harritzekoa izaz
Bartzelonak 15.121
biztanle galtzea

Berriz ere itsasoa, gure altxorra eta agian kondanaren zati bat ere bai. Uraren hogeita zortzi gradu eta erdiko temperatura joan den uztailean, azken hamarkadako batez bestekoa baino lau gradu gehiago data berberetan. Ez pentsa kanpoan freskoago egiten duenik: hamar urtean lehen aldiz, bost hilabete baino gehiagotan kateatu ditugu hirian gau tropikalak. Papagaiak etxean bezala daude eta ez naiz txantxetan ari. Maiatzaren 19tik gaur arte, ilargipeko gutxieneko temperatura hogeitaz gutxi gora mantendu da gau gehienetan.

Dena azkar-azkar doa eta giroa bero dago. Urteko bisitari kopuruari dagokionez, errekorra 2019an erregistratu zen, hiriko hotel eta pisu turistikoetan 33 milioi gau igaro zituzten hamabi milioi

turistarekin, datu ofizialak soilik kontuan hartuta. Legea egina tranpa ere bai. Orain joan zaitezte Udalarari galdetzera Airbnb-ri jarritako isunen inguruan; kapitalismo basatiak beti bereganatzen du higiezinaren giltza eta estatistika berriro geratzen da errealitatearen azpitik.

Eta hemen jarraitzen dugu askok, hazten ikusi gaituen hiriaren kanporatze planifikatuari aurre eginez. Urte hasieran alokairuaren prezioa %10 garestitu da, batez ere Auzitegi Konstituzionalak kontratu berrietarako prezioen muga bertan behera utzi ondoren. Hori guztia, hiri batean non errentarien kopurua milioi erdi ingurukoa den -biztanleriaren herena- eta batez beste diru-sarreraren ia erdia gastatzen duen dagozkion hilerokoei aurre egiteko. Hala, ez da harritzekoa 2021ean Bartzelonak 15.121 biztanle galtzea, Kataluniako Estatistika Institutuaren arabera udalerriz aldatu zirenak.

Bien bitartean, Bartzelonan 1.799 etxebizitza huts daude, edukitzaile handien jabetzakoak, Kataluniako Etxebizitza Agentziaren arabera. Gehienak dira hilabete honetan The District higiezinaren inbertsioei buruz hirian egindako kongresuan bildu diren funts putreenak. Buru gainera pixa egiten digute eta eurria ari duela esaten dute, zerua oskarbi dagoen arren. Ez daitezela despistatu, ordea, hemen, goizago ala beranduago, ekaitz beltzak itzultzen direlako beti. ●

0:00



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Kasik gauerdi da eta, udazken be-
tea izateko, beroegi da lo egiteko,
hego haize ufadak berina arteke-
tatik sartzen dira bafaka. Gauer-
di heltzear da, etxea lotan da eta ni ez:
ohean, alfonbrari begira, ni bezala nor
bere biziko metabertsuan murgildurik
alfonbrari begira daudenei pentsatzen
ari naiz. Hain zuzen ere, gauerdi laurden
gutxi dela bururatu zait, laster gauerdi,
0:00, zero pundua, arranguren eta
esperantzen arteko bidegurutze
hori; gero, gaur atzo izanen dela
eta bihar, gaur: egun berri bat, ez-
berdina, agian. Mundua zerbait berrita-
ra jausi daitekeen unea helduko da.

Gauerdi heltzear da. Alta, bihar ez da
izanen egun berria, aurrekoaren okertze
eta bertsio perbertsoagoa baizik. Iraga-
rria da. Alokairu sariak gora eginen dute
%5. Pobreen gizartean, gerla garaiko
arrazionamendu bonoen gisa, eskura-
tuko ditugu txartelak elektrizitatearen
ordaintzeko, txekeak erregaiengatik, tik-
etak janariarengatik, norbere lanetik
bizitzen ahal ez delako, eta hori dena,
ondotik, asistituak izateaz akusatuak
izateko. Metabertsoko ahots batek xu-
xurlatu du: ez baita desiragarria norbere
indarretik bizi ahal izatea?

Gauerdi helduko da eta bihar ez da
egun berria, gaurkoaren jarraipena bai-
no ez. Buruan buklean dut Melody Gar-
dot-ren ahotsa, *your heart is as black as
night* murmurio batean eta anartean,



PAULA ESTÉVEZ

ondoko etxean, pesta gaitza egiten ari
dira, Claude Francois-ren kantuak auzo
guziarekin partekatzen dituzte. Dio-
tenez, belaunaldi gazteek artista hilak
entzuten dituzte geroz eta gehiago, eta
aitzinekoek baino gutxiago egiten dute
txortan; eko-antsietateari lotzen dute
kontua, performance beharrerari.

Gauerdi eskas. Kontsumoa eta abe-
rastasuna sekulan deusek ez zituen
trabatu behar. Eta hara urritasuna,
arrarotasuna, indisponibilitatea norma
bilakatzen ari direla. Eta guzi horren
gainetik 49.3. Temperatura baino, bio-
lientzia konstituzionalizatuaren suka-
rraldia da. "Ez baduzu ogirik, jan ezazu
pastiza" zioenari burua moztu ziotela
bururatu zaio. Gaurkoak legeak alde izan-
nik, zerbait gerta ote dakieke bihar?

Alde orotan, *coming out* ekolo- bol-
txebikoak egiten ditu jendeak, amestuz

goiz lasaiak, egun handia amestu gabe,
lokalki engaiamendua hartuz, dollarrak
ahurtaraka biltzera joateko asmoa aban-
donatuz. Ez da hamarkada kontua, ez da
urte kontua. Arbasoek ehun zizkiguten
oihalak gure babeserako, zilatuak dira
alde orotarik. 40 urte dira iheska ga-
biltzala, Potemkinak eraikitzen direla,
nehondik ere liluratzen ez gaituzte-
nak dagoeneko.

Gau erdi da, ttanko. Arratsal-
dean semeak adierazi didanean
haren etorkizunari begirako kez-
ka, ez dut jakin ihardesten. Eta
galdegin didanean ea bihar ez dudanez
greba egin behar nik ere, noski erantzun
dio, beharko lukeela, behar genukeela
denek, altxatu eta kurritu, bestela, dena
antolatua delako injustiziaren mantentze-
ko, bermatzeko, emendatzeko.

Greba, aldi honetan, bai. Bai? Bai.
Agian galdera ez da ea grebara joan
behar den, baizik eta noiz arte, eta ea
zenbat gauza gehiagoren egiteko legiti-
mitate osoa genukeen, legearen ikuspe-
gitik zigorgarriak baina humanitatearen
partetik justifikatuak.

Alegia deusez, gauerdi joan da. Bihar
ez da egun bat gehiago izanen, ez goiz
bat edo greba bat gehiago, bihar duinta-
sunaren konkistaren lehen eguna behar
luke hasteko. Gaur zena atzo bihurtu
da eta bihar, gaur: egun berria eta an-
tzekoa. Mundua zerbait berritara jausi
zitekeen. ●



**ENEKO GORRI
GANTIER**
EUSKARA
TEKNIKARIA

Marienia ez hunki!

Astekari huntan idazten nuen azken zutabea, duela urte bete izan zen. Lurrama laborantza herrikoiairen besta Arbonako lur okupatueta iragan berri zen. Urkoidarren mobilizazioari esker, higiezin konpainia handi batek etxebizitza programa handi bati uko egiten zion. Eta Alda elkartearen mikro-okupazioen ondorioz, Airbnb multinazionalak legez kontrako hainbat egoera erregularizatu zituen.

Lerro hauek idazten ari naizenean, Kanboko (Lapurdi) Marienia pentzearen okupazioa bukatu berri da. Hiru egun eta hiru gauetz, ehunka pertsona mobilizatu dira 3,5 hektareako lurren defentsan. Kalitatezko laborantza lur hauetan, Bouygues enpresak etxe multzo bat eraiki nahi du, beste behin lurren artifizializazioa eraginez eta laborantza lurrak desbideratuz. Gure agintarrittoek segitzen dute gehiengo baten kalterako, gutti batzuen interes ekonomikoei men egiten.

Tamalez, azken hilabeteetako aktualitateak erakutsi digu Kanbokoa ez dela kasu isolatua. Azkarate, Lekarroz, Angelu, Irisarri, Maule, Jaizkibel, Senpere, Baiona... Urtero laborantzak ehunka hektarea lur galtzen ditu betirako, eta aldi berean etxebizitzaren garestitzeak ikaragarriko heina gairatu du. Logika kapitalista eta espekulatibo horrek estutasuna eta ezinegona sortzen ditu

ipar Euskal Herriko biztanleriaren parte handi batean. Alta, lurraren alde mobilizaterako orduan, betikoak dira barrikadetan.

Horrek erran nahi ote du deus ez dela aitzinatzen? Azken hilabeteetan deus ez dela lortua izan? Okupazio hauen eragina mediatikoa dela bakarrik? Parean dugun sistema sendoa da; eta tresna guziak alde ditu: legeak, hautetsiak, arauak, pentze jabeak... Baina Arbonaz geroztik, zerbait pasa da. Hori erratea ez da baikortasun inozo batean erortzea. 120 eguneko okupazioak mezu argia bidali die espekulatzailerei. Jende hori aberastan da moralarik ez duelako, epe luzera begira ari direlako eta kalkulatzailak direlako. Biziki jende pragmatikoa da: haien inbertsioak etekinak atera behar ditu; eta ekuazioan sartzen baldin bada ados ez den jende baten mobilizazioa (okupazioaren forma har dezakeena), gibelera egin dezakete. Hori pasa da Arbonan, bi eroslek gibel egin baitute.

Aniztasun ederra bada borroka horietan: laborari, hiritar gazte, langile prekario, erretretadun uros, militante esperimentatu edota arazoaz kezkatutako herritar xumeak. Ez gira beti ados, baina aitzina goaz. Gauzak diren bezala erran behar dira: espekulazioaren kontrako bataila ez da irabazia, baina herri mobilizazioei esker, urratsak ematen ari gira. ●



**EVA PEREZ-PONS
ANDRADE**

Burujabetza energetikoa II

Etxebizitzetan energia lortzeko erabiltzen den teknologia mota erabat baldintzatuta dago klase sozialarekin, eta zentzu horretan, burujabetza energetiko berdea gutxi batzuen esku dagoen ondasuna litzateke.

Teknologia horiek sortzeko beharrezkoak diren lehengaiak aztertzen baditugu, ezingo genuke erabateko burujabetza baten inguruan hitz egin, mineral horietako asko Hegoalde Globaleko herrialdeen esplotaziotik baitatoz; hau da, haiekiko dependentzia dugu. Eta ezingo genuke ezta ere berde absolutu baten inguruan hitz egin, teknologia horiek ekoizteak, garraiatzeak eta haien fabri-

kaziorako beharrezkoa den mineralen ustiapenak eragiten duen aztarna ekologikoa nabarmena delako.

Helarazi nahi dudana mezua ez da energia berriztagarrien kontrako, baizik eta pentsatzea non, nola eta zein helbururekin egiten ditugun instalazioak. Izan ere, energia berriztagarriak naturan ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko daude. Etekin ekonomikoa atera nahi bazaie, edo beharrezkoak izan gabe modan daudelako jartzen baditugu, hasiera batean pentsatuak izan ziren helburuen kontra egiten ibiliko gara, teknologia horien atzean karbono dioxido igorpenak baitaude. ●

Basquechefen huskeriak



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Duela hiru urte, Espainiako Ogasunaren eskariz egindako erregistro judizial batek izu bolada sortu zuen euskal oasiaren ostalari ospetsu batzuen artean. Jatetxeen diru-sarrerak ezkutatzeko eta fakturazio bikoitza burutzeko softwarea azalerazi zuen ikerketak. Zerga Administrazioako Estatu Agentziak Getaria, Hondarribia, Pasaia, Bermeo eta Ondarroako portuetako arrain-lonjetan egindako ikuskapen batean laguntzeko eskatu zien Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-ogasunei.

Ikuskatzaileek dokumentazioa arakatu zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetako 21 lonjatan. Ikuskaritzaren txostenaren arabera, sektore honetan "B" zirkuitua dagoela egiaztatu da, armadoreetan hasi eta enkantegileetatik, handizkarietatik eta txikizkarietatik igaro ondoren, jatetxeetara iristen dena; eta, azkenik, kontsumitzailearengana.

Ikuskapenak tamaña handiko zerga iruzurra detektatu zuen, salmentak ezkutatzeko software espezifiko bat erabiliz eta eskudiruzko kobrantzen bolumen handiak lagunduta. Iruzur fiskala burutzeko software bereziaren afera epaitegietan ere ikertu da. Hau guztia isilpean gordetzeko ahaleginetan dabilta sukaldari saridun batzuk, kargu publiko batzuen babesarekin eta kazetari batzuen autozentsurarekin.

dari saridun batzuk, kargu publiko batzuen babesarekin eta kazetari batzuen autozentsurarekin.

Aldi berean, beste isiltasun ozen bat jaso da euskal sukaldaritzan, goi sukaldaritzako bekadunen edo stagierrren lan-baldintzen inguruan. Gehienak kontraturik gabe lan egiten duten pertsonak dira, kasu batzuetan jatetxeetako sotoetan baldintza penagarrietan ostatu hartuta daude.

Jatetxeen
diru-sarrerak
ezkutatzeko eta
fakturazio bikoitza
burutzeko
softwarea azalerazi
zuen ikerketak

2017. eta 2020. urteen artean, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek hainbat kontratu esleitu zizkieten *Masterchef* programaren ekoizleari, turismoaren sustapenerako eta lankidetzak bultzatzeko. Repsol Soles 2021eko gastronomiarik onena saritzeko ekitaldia Victoria Eugenia Antzokian burutu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta Repsolen arteko hitzarmen baten baitan. Basquetourrek 180.000 euroko lankidetzahitzarmena sinatu zuen Repsolekin, *Masterchef* lehiaketaren finalean Turismo kontseilaria probako epaile izendatzeko. Finala Chillida Lekun jokatu zen. Finalaren aurretik, Eventia 2000 enpresak ordainsaria jaso zuen sukaldaritzan ekitaldi bat burutzeko. Pedro Altamiraren enpresaz ari gara, Ertzaintzaren UTAPeko zuzendari izandakoa, Sabino Arrieta sailburuorde zen garaian hain zuzen. Sabino Arrietak, enpresari bilakatu dena, laguntza teknikoa eman zion MasterChef Eskola sortzeari 2013an.

Bitartean, hain goraiatua den euskal oasiaren sukaldaritzaren arrastorik ez eskola-jantokietan. Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz catering kartelaren alde egiten du. ●

eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari
Nafarroa hego eta erdialdean

errigora
errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

**Herriak
egiten du
herria**



aek

ikastolenelkartea

Sortzen

 **LURRA
HERRIARI
DEIKA**



Euskal Herriko agroekologia mugimendua eta ARGIAren elkarlana.
Diseinu berriak azokan salgai. %100 kotoi organikoz egindako kamisetak.

Prezioa **19,50 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

FRANKFURTEKO LIBURU AZOKA

Mundu oso bat euskal liburuen aurrean

Europako liburu azoka handienak milaka bisitariren, mundu osoko argitaletxeen eta editoreen, eta bertaratu diren euskaldunen arreta piztu du urriaren 19tik 23ra Frankfurt. Kontinenteen pabiloien artean, Asturias, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko idazle, ilustratzaile eta argitaratzaileek beren lekua topatu dute, Espainia herrialde gonbidatua izan duen edizio berezi batean. Beyond Spain programa alternatiboa ere antolatu dute hainbat herritarrek egun horietan, kontrapuntu politikoa egiteko.

 PATXI GAZTELUMENDI

Frankfurteko tren geltoki nagusian kafea hartu eta tranbian bi edo hiru geltokitarago dago liburu azoka. Akreditazioa irakurtzen dizute mugikorrarekin, kontzertu batera sartuko bazina lez. Eurria ari du kanpoan. Bero egiten du barruan. Pabiloi luze bat gurutzatu, plaza bat, Agora izenekoa, eta beste pabiloi batean sartu gara. Oraindik ez ditugu tokiak eta zenbakiak ondo bereizten. 3. zenbakia duena Alemaniakoa omen da. Lehenengo pabiloian dira Espainiak hitzaldi eta ekitaldiak, 4.1ean daude euskarazko liburuak, beste askoren artean. Baina denborarekin ikasiko dugu hori. Liburu azokara sartu eta landareak dira ikusi ditugun lehen gauza, hara, Jakoba Errekondo ere iritsi da Frankfurtera! Baina ez da ARGIAren postua-. Baina liburugintza berdeak ere badu bere

arrakasta. Hortik aurrera dena da stand, liburu azal, argitaldari eta argitaletxe. Herrialdeak eta liburuak. Tamaina eta neurri ezberdinetakoak. Hemen eta han.

Europako liburu azokarik handiena da Alemaniako hiri honetakoa. Eta horrek erakarrita etorri gara gu ere. Zer ikusiko eta, batez ere, zerbait ikasteko asmoarekin. Neurriari erreparatu eta ikartzeko modukoa da. Dozena erdi Durango berton. Egun bateko sarrerak 25 euro balio du eta 70 azoka guztirako paseak. Profesionalen egunak izan dira asteazkenetik ostiralera bitartekoak, eta larunbatean eta igandean jende gehiago espero da. Askoz gehiago, hona etortzeko ohitura dutenen esanetan.

Pabiloi batera sartu, -kostata heldu gara, eta nekatuta ere bai- eta bertan ikusi dugu egurrezko eraikin handi samar bat. "Basque.Books", dio, eta Eus-



kal Herriko argitaletxeetako liburuak dauzka apaletan, ezagun zaizkigunak. Ondoan, Galiziakoak, Andaluziakoak, Asturiasekoak. Parean Kataluniako gune handiago bat dago. Eta aurrera eginda Portugal, Brasil, Lituania, Ginea, Angola, Suedia, Kanada, AEB... eta beste hamaika gune, herrialde, argitaletxe handi eta enparau.

OBABA FRANKFURTEN

Bernardo Atxagarekin solasaldia dago Espainiako kultur ministerioaren ekimenez antolatu diren ekitaldien artean. Euskal Editoreen Elkarte Ana Urrestarazurekin batera abiatu gara entzutera. Ostean, Atxaga agurtzera hurbildu dira euskal editore zenbait, Etxepare Euskal Institutuko ardura-duna, beste egileren bat. Alemaniako egonaldiaren ostean, Mexikora joa-



DPA PICTURE ALLIANCE ARCHIVE

tekoa da eta han ere hainbat hitzaldi emateko ardura hartu du. Ostein beste aurkezpen batzuk, bidaia gehiago. Ez da nekatzen Asteasukoa. Eta Obabari buruz zelan idazten hasi zen gogoratu behar izan du, Gabriel Arestiren bultzada ekarri du gogora, Freud eta Marx nor ziren ezagutzen ez zutenen herriaz idatzi behar izan zuela, eta pasarteak, eta gertatutako istorioak, eta idazteko dituenak kontatu ditu. Baina nobelarik ez, horretarako beste bost urte behar-ko litzukeelako.

Berriz itzuli gara euskal liburuen abarora eta korridoretan barna murgildu gara, gure liburuen bila. Ezagutzen ez ditugun idazleen lanak ikustera. Bidaia agentzia erraldoi batean murgilduko bagina lez. Mundua txiki sumatu daiteke hemen, baina nazioartean ari gara etengabe.

Itzultzaileen laguntzaz, editoreen lanarekin eta sustatzaileen eskutik mundua ezagutuko dute euskal hitzek

EUSKAL EDITOREAK

Guk bezala, lehen aldia du Uxue Razkin Erein argitaletzeko editoreak azoka honetan. "Nazioarteko literaturaren erakuslehi handia izatea espero nuen eta hori da aurkitu dudana", baieztatu digu. "Iruditzen zait erakuslehi aparta dela informazioa jasotzeko: zer irakurtzen ari den jendea, argitaletxeek zer duten haien katalogoetan. Azken baten, azoka honi esker Eskandinaviako liburuak ezagutu ditut, adibidez, zer argitaratzen ari diren, nolakoak egiten dituzten liburuak...". Lehen aldia du, eta ez da tratuetan sartu Ereingo editore berria. Izango du horretarako aukerarik aurretantzean. Baina garrantzitsua iruditzen zaio euskal argitaletxeak Frankfurten egotea. "Mapan ere bagaudela esateko modu bat da, hau da, aldarrikatzea gu ere sistema horren barruan bagaudela".

Etorri izanaz kontent dago Razkin: “Niretzat oso esperientzia aberasgarria eta polita izan da. Ez bakarrik liburuak ikusi ditudalako, hori asko gustatzen zait, azokak maite ditut, baina ez hori bakarrik; kontaktuan egoteko agente literarioekin, argitaletxeetako editoreekin... Sare literario hori eraikitzeke aukera eman dit eta hori beti da aberasgarria, asko ikasten duzulako”.

Euskal Editoreen Elkarteko Ana Urrestarazuk urteak daramatza azokara etortzen. “Elkarte bezala, berez, gure zerregina editoreei bidea erraztea da, hona editoreak datoz negozioa egitera, beste argitaletxeen eskubideak erosi eta saltzera”. Duela 25 urte etorri zen lehenbizikoz: “Etortzen hasi ginenean stand txiki-txiki bat zen gurea, ez diseinuzkoa, eta argitaletxe gutxi-gutxi etortzen ziren”, gogoratzen du Editoreen Elkarteko arduradunak. Eta elkargune honetan zenbat eskubide erosi eta saldu diren ikusi dute urteotan guztiotan. “Poz berezia ematen dizu hemen erositako liburuak gurean argitaratzen direnean”. Bilerak egiten dira postuan, elkar ezagutu. Egunotan buru belarri dabilta Eslovenia, Valentzia, Frisia eta beste toki askotako literatur eragileekin lanean nazioarteko *Lit up* egitasmoari forma ematen. Aurten Frankfurt euskaraz argitaratzen duten hamar argitaletxe daudela azpimarratu nahi izan du Urrestarazuk: Erein, Susa, Txalaparta, Elkar, Pamiela, Igela, EHU, Astiberri, Sua eta Etxepare.

Miren Agur Meabe ere agurtu dugu, poesiari eta musikari buruz aritu da solasean Yolanda Castaño poeta galegoaren aldamenean; ondoan izan du, baita ere, Elena Mede andaluziarra. Poesiaren hizkuntza, musika, hiztegia errepasatu dute eta poema banarekin bukatu dute saioa, bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzan. Amaieran, txaloak, horiek unibertsalak dira. Patxi Zubizarretak eta Jokin Mitxelena ipuin bat marraztu dute eta kontaktuzuna kolorez eta zirriborroz eskaini diete bertaratutakoei. Katixa Agirrek amatsuna eta sorkuntza hartu ditu beste egile batzuekin batera. Gu bezala beste 90.000 lagun baino gehiago etorri dira azokara: liburuaren industriari lotutakoak, argitaratzaile, agente, editore edo erakusle. 87.000 bisitari gehiago aste osoan. 4.000 lagun postuetan lanean. Mundu bat du hemen aurrean euskal liburuak, euskal letrek. Idazleen eskutik, itzultzaileen laguntzaz, editoreen lanarekin eta sustatzaileen eskutik mundua ezagutuko dute euskal hitzek. ●

IRENE LARRAZA

Etxepare Euskal Institutua

“Banderatzat hartu beharko genituzke euskal idazleak munduan”

 PATXI GAZTELUMENDI

Zein da Etxepareren egitekoa Frankfurtekoa bezalako azokan?

Gure egitekoa orokorrean ez dago merkatuaren eremuan. Hor badaude profesionalak, kasu honetan editoreak, autoreak, itzultzaileak... sistema oso bat. Frankfurteko azoka, hain zuzen, eskubideen salmenta eta erosketarako azoka bat da; ez da liburuaren promoziorako azoka bat edo autoreak ezagutarazteko azoka bat. Beste azoka batzuetan daukagun partaidetzarekin konparatuta, hau bestelakoa da. Baina Frankfurt bezalako toki bat interesgarria da, hemen elkartzen direlako mundu honetan interesgarriak eta norbait diren erakunde eta eragile asko. Bilerak bertan antolatzen ditugu, kontaktuak egiten dira. Eta alde horretatik oso espazio interesgarria da, zinez.

Aurten, Espainia herrialde gonbidatua izanda, euskal idazle batzuk gonbidatuta egon dira jadanik eta euskal editoreek erabaki dute hori baino gehiago ez jorratzea egileen presentzia. Horrela izan ez balitz, jaialditxo bat egingo genukeen hemen bertan.

Eta zein plaza da alde horretatik hau baino garrantzitsuagoa?

Boloniako azoka oso garrantzitsua da, adibidez, haur eta gazte literaturaren arloan. Badira Goteborge-

koak bezalakoak, beste neurri bat duena, eta guk presentzia handiagoa izan dezakeguna. Eta oihartzun handiagoa. Gudalajarako FIL, edota Miamikoa, horiek oso garrantzitsuak izan dira beti guretzat.

Euskal stand hau ere, elkarlanaren emaitza da? Editoreak, irudigileak, Etxepare bera elkarrekin zaudetelako.

Duela urte batzuetatik editoreen eta agentearen duden idazleen sarea gero eta indartsuagoa da. Nazioartekotzea agendan daukatenak. Guk argitalpen bilduma bat ekartzen dugu. Ez dago salgai, zabalkunderako materiala da, hizkuntzaz, literaturaz, zinemaz, arteaz hitz egiten duen materiala da, eta jendearen eskura jartzen dugu, doan, gure liburugintzari testuinguru bat emateko. Nor garen kulturaren bitartez kontatu nahi dugu, hemen eskaintzen ari garena ulertu dadin.

Espainia herrialde gonbidatua izateak eragin dio Etxepareri zerbaitetan?

Stand hau sekula baino handiagoa da, baina horrek erantzuten dio aurten ilustratzaileak gurekin izateari, batez ere. Argitaletxeak eta irudigileak batera daude, beraien lana munduari erakusten. Dimentsio hau ematea aurten gertatu da, baina aurrerantzean ere horrela izatea nahi genuke.



Hau editoreek egin dute, Jaurlaritzako kultura sailarekin batera. Presentzia sendo honek onura egiten dio euskal liburuaren sistema osoari. Zabalkunde bezala, idazleen prestigioan ari garen erakundeoi. Munduan burua altxatu behar dugu, eta askotan gertatzen zaigu nazioartera jauzi egitean nor garen azaltzen ibili behar dugula, baina gure maila erakutsi behar dugu. Hemen gaudela esan, eta nor garen adierazi, gero.

Zer jaso duzu egun hauetan hemen? Zerekin bueltatuko zara Euskal Herrira, eguneroko lanera?

Alde batetik Kataluniako Llul fundazioarekin harreman handia daukagu. Presentzia handia daukate Kataluniako editoreekin batera, Bartzelonako Udalak ere bere lekua hartzen du. Argitalteak ere badatoz. Oso eredu interesgarria da, eta gurea baino handiagoa. Agente sare propioa ere badute Kataluniako idazleek. Neurri batean beraien egiteko modu batzuk, guretzat eredu-

garri badira ere, gure eredu propioa landu behar dugu. Gu beste batzuk baino txikiagoak edo ahulagoak izan arren, potentzia handia dugula erakusten ari gara. Egunotan hainbat euskal idazle entzuten izan gara azoka barruan eta azokatik kanpo ere -Beyond Spain ekimenean, adibidez-. Iruditzen zait gure sortzaileak protagonista esanguratsuek direla, beste egile batzuekin batera entzuten ditugunean konturatzen gara zelako maila dagoen Euskal Herrian. Diskurtso intelektual izugarria daukate; euskaraz idazten dute, eta edonoren mailan daudela erakusten dute. Euskal idazleak munduan banderatzat hartu behar genituzkeela iruditzen zait.

Idazle guztiak ez daude nazioarteko eremuan oraindik, baina pixkanaka gero eta gehiago ari gara horretan. Euskal leihotxoak sortzen saiatzen gara nazioarteko jaialdi askotan. Nazioartean ibiltzeko aukera daukate idazleek, baina gero erantzun beharra dago. Gure ardura da horretarako bidea erraztea,

itzulpenetarako bekak sortuz eta abar.

Mundu bat dago bilduta hemen, horrelako azoketan aukera berriak ere sortuko dira.

Sektoreak begiz jotzen duen toki interesgarriari jarraitu behar diegu, edota beste harreman batzuk sortzen dira, kontzeptualagoak. Quebec landu dugu, Eskoziarekin ari gara lanean. Ezagutzen gaituzte, eta maite gaituzte gainera. Tantaka tantaka egiten ari garen lana da, orain ere bilerak egin ditugu galesarrekin, euskaratik galesera itzulpenak egin eta Galesetik gurera ere ekartzeko. Industriaren logikan gerta ezin daitekeena gauzatzea da gure hautua. Galesek adibidez, hizkuntza eta kultura bezala ez dauka presentzia fisikorik hemen, ez dauka stand bat. Baina bi hiru lagun izan ditu bueltaka, harremanak egiten, lanean. Eredu bat da hori. Quebec-ek edo Flandriak oso presentzia handia daukate azoka guztietan. Guk Basque.Books daukagun bezala. ●

PETRA ELSER

Beyond Spain egitarau alternatiboa

“Politikoki kontrapuntu argia jarri dugu”

Frankfurteko liburu azokan Espainia herrialde gonbidatua izango zela jakindakoan martxan jarritako Beyond Spain ekimena antolatzen aritu da azken hilabeteetan Petra Elser. Hitzaldiak, mahai-inguruak eta irakurraldiak egin dituzte, besteak beste. Itzultzailea da Elser, Euskal Herrian bizi izan da luzaroan, baina aspaldi honetan berriz ere Frankfurten ditu lana eta bizitokia. Harremanetan jarraitzen du euskal errealitatearekin. Itzultzailea, aktibista eta etorkinak euskalduntzeko esperientzia oparoa lantzen ezagutu dugu gurean.

 PATXI GAZTELUMENDI

Zer moduz joan da Frankfurteko zuen egitaraua?

Orokorrean oso pozik gaude. Inguruan 25 idazle, hizlari eta parte-hartzaile mugitu ditugu eta hurbildu dira hona. Diasporako komunitatea, Alemanian eta inguruan bizi diren euskaldun, katalan eta galiziarrek. Guretzat aukera ederra izan da komunitate ugariatuko idazle eta jendearen artean harremanak sortzeko. Literatura eta mundu ezberdinen artean, sindikalistak, lan politikoa egiten dutenen artean.... Politikoki kontrapuntu argi bat jarri dugu. Liburu azoka ireki eta Espainiako errege-erreginak ikusi ditugu ia egunero hemengo hedabideetan eta guk beste irudi bat eman dugu, horren kontra sortu dugu gune bat.

Prentsan idazle batzuk espainiar bezala agertu dira: Katixa Agirre, Bernardo Atxaga... Baina guk ez dugu hori elikatu eta alde horretatik pozik gaude. Gero hitzaldi interesgarriak entzun genituen, irakurraldi politikak eta jendetsuak, rap kontzertua areto betearekin, hiru hizkun-

“Literatura modu herrikoian tratatu dugu, bizitzaren, politikaren eta gizartearen parte gisa, ez modu merkantilizatuan”

tza komunitatetako taldeekin. Hori ez da inoiz egin Alemanian, oso adierazgarria izan zen kulturalki eta zentzu horretan poz-pozik gaude.

Zergatik ikusi zenuten beharrezkoa horrelako formatu bat?

Ez dakigu espainiarren estrategia beraiek

asmatu zuten edota alemaniarrek proposatu edo behartu zituzten. Kasu guztietan estrategia izan zen kultur aniztasunaren adierazle moduan aurkeztea haien burua. Idazle euskaldun, katalan eta galego asko gonbidatu zituzten eta horrekin erakutsi nahi zuten oso irekiak direla, guztiek lekua dutela, denak kabitzen direla Espainia barruan eta aldi berean denak direla espainiarrak. Guk erakutsi nahi genuen hori faltsua dela. Nahiz eta hemen erakutsi hizkuntzaren aniztasuna edo euskal literatura eta literatura katalana, gero hizkuntza politika oso ezberdina da. Hori erakutsi nahi genuen, benetan zer gertatzen den gure nazioen komunitateetan eta zein den hizkuntza politika eta non murrizten duten hizkuntzaren erabilera. Eta Espainia barruan egotera behartzen gaituzten bitartean inoiz ez dela izango eskubide osoa norbera bere hizkuntzan bizitzeko. Nola aurkeztu gure literatura, politika, kultura gure ikuspegitik, alde aurretik jarrita zegoen egitarau baten barruan, gonbidatu moduan. Diruarekin



Beyond Spain ekimeneko mahai-ingurua, Espainiako Estatuko demokraziaren egoerari buruz, Frankfurtan. Eskuinean, Petra Elser.

denetarik egin ahal da, hegaldia ordaintzen badizute aukera daukazu idazleak ekartzeko.

Nolako publikoa hurbildu da?

Ekitaldien arabera ezberdina izan da. Gai historikoen ekitaldietara, Gernika eta 1936ko Gerra, memoriaren inguruko ekitaldietara batez ere gazteak hurbildu dira. Nabari zen beraiek gai hori ez dutela ezagutzen eta interesa daukatela. Errepresioaren gaira gazteak hurbildu ziren eta gero aspaldiko ezkertiar jendea, betiko interesengatik.

Hizkuntza eskubide eta eskubide politikoei buruzko hitzaldietara irakasleak, sindikalistak, etorkinekin harremanak dituztenak. Hizkuntza gutxituen gaia ez da bakarrik Euskal Herrian ematen, herrialde askok dituzte hizkuntza gutxiak. Afrikatik hona datozen etorkinen herrialdeetan hizkuntza gutxiak hitz egiten dituzte, baina ez dira onartuak. Alemaniako eskoletan atzerriko jatorria duten ikasleen ehuneko handia dago. Saiatu ginen hango esperientziak hemengo jendeari ulertarazten, beraiek ere haien lanean erabili ahal izateko.

Irakurraldietan bi motatako jendea batu dugu: alde batetik, erreferentziak zituztenak, batez ere euskal literatura-rena, batzuk baita katalanena eta gale-

goena ere. Bestetik, publiko herrikoia, auzoko publikoia edo literaturazaleak.

Euskal literaturarekiko harremanik piztu da?

Hemen aspaldi piztu zen harreman hori. Duela 15 urte Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* alemanera itzulita aurkeztu genuen. Gero Zubiak literatur bilduma sortu zen, eta euskal idazle ezberdinen bilduma argitaratu zen. Oraindik existitzen da hainbat lekutan. Raul Zelik-ek argitaratu zuen *Lagun armatua*. Gero badaude irakurraldi batzuk Euskal Etxeak antolatutakoak. Euskal idazleak gonbidatzen dituzte. Beraz, badago jendea erreferentziak badituena. *Lagun izoztuaren* irakurraldia oso formatu interesgarrian egin zuten: pertsona batek liburuaren historia kontatzen zuen eta tartean hiru pertsonak irakurri zituzten liburuaren zatiak; neska kurdu gazte bat, Irlandik duela 30 urte errefuxiatu moduan etorri zen gizon bat eta mediku bat Mediterraneoan itsasontzi batean ibili dena errefuxiatuei laguntzen. Ideia izan zen haiek hirurek eleberri bat irakurtzen zutela baina era berean haien istorio propioa sartuta zegoela. Asko gustatu zitzaidan. Hori izan zen literatura modu herrikoian tratatzea eta bizitzaren, politikaren eta gizartearen parte izatea eta ez merkantilizatuta. ●

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Izan zirenentzako leku bat

Jaio baino lehen edo jaio berritan hiltzen diren haurren dolua ikusarazi eta aitortzeko espazio bat irekiko dute Hernanin. Horrelako bigarrena izango da Euskal Herrian. Heriotza perinatala bere azalean bizitako Esti Zeberio Zubelzuk bultzatu du ekimena, eta samina igarotzeko familiek zer behar duten azaldu du.

 JONE GARTZIA GERRA

Haurdunaldiko 22. astearen artean eta bizitzako lehen zazpi egunetan zehar gertatzen den heriotza da perinatala, Osasunaren Mundu Erakundearen definizioaren arabera. Aste horietan edo aurrekoetan galera horren ondorena bizitzen den saminari esaten zaio dolu perinatala edo gestazionala.

Biak bizi izan ditu bere azalean Esti Zeberio Zubelzu hernaniarrak. 2017ko urtarrilaren 27an hil zen Marko bere seme zaharrena, jaio zen egunean bertan. “Ezustean” etorritako gertaeren ostean bizitako guztiak gogoeta eta amorrua piztu zizkion. Besteak beste, ospitaleetako protokolo falta eta dolua igarotzeko aintzatespen sozial eta legal eza aipatu ditu. Bere dolu prozesu propioan aurrera egin zuenean eta urte batzuk igarota, Hernaniko Udalarri idaztea erabaki zuen, bertako hilerrian dolu perinatalari eskainitako espazio bat egokitu zezan eskatzeko.

Labur azalduta, horrela bideratu zuten duela urtebete laster inauguratuko den espazioaren diseinua martxan jartzea. Istorio luzea aurrerago azalduko dugu. Orain, goazen sakonago ulertzera dolu perinatalari ikusgarritasuna ematearen garrantzia zertan den.

TABUA

“Dolu perinatalak badu berezitasun bat, gainkarga bat, dolu gehienek ez dutena: tabua da”. Argi mintzo da Esti Zeberio Zubelzu. Bere ustetan, heriotza horiek

Aurretik ilusioz prestatutako etorkizun batekin amestu dute gurasoek, haurrari izena jarri diote... Baina, bat-batean, prozesu hori heriotzak eteten du eta dolua ezkutuan igarotzen dute

ezkutatzeko joera prozesu luze bat da, oraindik ere errealitatearekin bat ez datorrena. “Gizarteak haurdun ikusi zaitu, eta normaltasunarekin bizi izan du zurekin batera haurdunaldi hori. Baina umea hil egin da eta ez du ume hori ezagutu, beraz, ez da aintzat hartze natural hori bizitu”. Oso bestelakoa da gurasoen bizipena. Heriotza perinatala gertatzen denean gurasoak haurraz erditzen dira, ikusteko, ukitzeko eta agurtzeko aukera ere izaten dute maiz. Aurretik ilusioz prestatutako etorkizun batekin amestu dute, haurrari izena jarri diote... Baina, bat-batean, prozesu hori heriotzak eteten du eta dolua ezkutuan igarotzen dute.

Jaioberritan hildako haurrei ez zaie beste pertsonen izaera bera aitortzen, eta hori muga handi bat da senideek bete beharreko prozesu gogorrean.

Zeharo zabaldua dago haurdunaldiko lehen hiruhilekoa igaro arte haur baten esperoan zaudela isilpean gordetzearen ohitura. Zeberioaren hitzetan, horrek argi adierazten du zein punturaino den tabua heriotza perinatala. “Behin eta berriz sartu digute buruan aurreneko hamabi asteak gaindituta kontatu dezakegula haurdun gaudela, aurretik badaezpada itxarotea komeni dela. Zergatik? Zerbait gertatzen bada ezkutuan eta isilean eraman behar dugulako? Aurreneko hiruhileko hori gainditu ostean ezin daitekeela ezer gertatu?”.

Dolu prozesuak pertsonalak direla uste du hernaniarrak, nork bere denbora eta modua urratu beharko duela; baina, kasu guztietan oinarri bera beharrezkoa dela aipatu du: “Gurasoek behar dute errespetua, umea existitu izan zenaren aitortza, alaba edo semearen izena normaltasunez esan ahal izatea”. Ez du tratu berezirik eskatzen, “soilik edozein heriotzaren aurrean izan daitekeen jarrera bera izateko eskubidea”.

BIZIPEN GOGORRAK

Heriotza ez da samurra inorentzat. Aitortu eta argitu gabeko heriotzek min handiagoa eragiten dute askotan. Erditu aurretik zein ondorengo uneetan hiltzen diren umeek ez dute inolako errekon-



Hernaniko hilerrian espazio bat egokituko dute jaio baino lehen edo jaio berritan hiltzen diren haurrentzat. ESTI ZEBERIO ZUBELZU

zimendurik, ez jendearen aurrean ezta legearen aurrean ere.

Haurdunaldiko 24. astera iristen ez diren umeen gainean gurasoek ez dute inolako erabakimen gaitasunik. Ezin dute gorpua edo haren oroitza penik gorde, ezin dute hilotzarekin zer egin erabaki. Horrez gain, 24 ordu baino gutxiagoz bizi izandakoak legez ezin dira familia liburuan idatzi. Kasu horretan haurdunaldiko asteak ez du axola, baldintza hori da, 24 ordu egon behar du haurrak bizirik. “Egoera honetan jaiotzen diren ume gehienak ez dira existitzen, inorentzat, gure artean egon diren arren”, jarri du azpimarra Zeberio.

Marko, Esti Zeberio Zubelzuren semea, oso gutxiatik ez zen heldu 24 asteak betetzera. “Gure txikia 2017ko urtarrilaren

27an jaio eta hil zen. Umea erditu nuen, erditze normal bat izan zen, dilatazioarekin, kanporatzearekin... baina, banekien, bagenekien, Markok ez zuela bizitarik izango, nahiz eta bizirik egon”. Gurasoek ez zuten haien semearekin zer egin nahi zuten erabakitzeke aukerarik izan. Umea ezagutzen utzi zieten, ikusi eta agurtu, eta eraman egin zuten. Amak kontatu digu ez zietela esan nora zeramatzen ezta zer egingo zuten berarekin, “ez momentu horretan ez eta aurrerago ere”.

Ospitaleen protokolo falta kritikatu du. Bera Donostiako Ospitalean erditu zen Markoz, eta ez zuen inolako laguntza psikologikorik edo informaziorik jaso. Areago, erditu eta hurrengo egunean alta jaso zuen, erditu osteko dilatazio eta odoltzeekin. Esnea ez igotzeko pilula

eman eta etxera bidali zuten, ginekologia azterketarik eta emaginaren jarraipenik egin gabe.

Ez hori bakarrik, sarri ospitalean bertan sekulakoak entzuten direla ohartarazi du hernaniarrak. Berak, zehazki, erditu ostean “lasai, izango dituzu ume gehiago” entzun behar izan zuen gelan. “Eta? Imajinatzen duzu aita galdu duen edo senarra galdu duen norbaiti hori esango bagenio?”, kexu da.

Beste konparazio bat ere egin du. Berak ezin izan zion eman semeari nahi zuen agurrik, leku jakin batean kokatu edo haren errautsik jaso. Ebakuntza baten ostean meniskoa kentzen diotenari, ordea, ontzi batean etxera eramateko aukera ematen diote. Ulergaitza bezain mingarri da alderaketa.

Baltsamazio, kontserbazio
eta berreiraketan adituak.

Errausketak, beilatoki guztietan zerbitzua,
baita aseguru-etxeekin ere.
24 orduz etengabe.

Munalurra 8, Usurbil (Gipuzkoa) • 943 362 163 • 660 388 652



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ALDARRIKAPEN ZEHATZAK

Esti Zeberio Zubelzuk argi du zer behar den bai jendarte zein erakunde mailan dolu gogor hau igaro behar duten familiei laguntzeko: “Hil berri den gure seme edo alabarekin zer egin guk erabaki ahal izatea, eta guk erabakitzea non eta nola agurtu nahi dugun”. Ospitaleetan egoera hauen aurrean jarduteko protokoloak aldarrikatu ditu. Laguntza psikologikoa, gurasoak ez jartzea sano jaioko diren umeak erditzen dituztenen gela berean, senideek umea ikusi eta agurtzeko aukera izatea, eta dolu prozesuan lagungarriak izan daitezkeen elementuak biltzea (izan argazkiak, ile zati bat, errautsak...), besteak beste.

Legeari erreparatuta, guraso guztiek haien seme-alabekin zer egin erabakitzekeo eskubidea izatea aldarrikatu du. 24 asteko muga eta haurra familia liburuan inskribatu ahal izatea eskatu du. Eta jendartean, “izango duzu beste bat”, “ondo egon beharko zenuke dagoeneko, ahaztu”, “behintzat ez zaizu gertatu umeak 2 edo 3 urte zituenean” eta hala-koak maiz entzuten direla gaitzetsi du.

TXOKO BAT HERNANIKO HILERRIAN

Aurretik aipatu moduan, Esti Zeberioek bizipen pertsonaletik abiatu zuen Hernaniko hilerrian heriotza perinataleku bat eskaintzeko borroka. “Borroka”, berez, ez zen gogorra izan. Proposamena egin bezain laster jaso zituen Udalaren lanerako presuntasuna eta interesa. Marko hil osteko urteetan, dolua igarotzen ari zela, Estatu mailako horrelako espazio batzuen berri izan zuen Zeberioek. Gutxi ziren, lau zapabost, eta gehienak Katalunian zeuden. Bilboko Udalak Derioko hilerrian leku bat egokituko zuela ere irakurri zuen - 2021eko azaroaren 1ean inauguratu zuten-. Hernaniko Udalar eskatu zion herrian bertan horrelako gune bat sor zezan. Erabateko elkar-



Erditu aurretik zein ondorengo uneetan hiltzen diren umeek ez dute inolako errekonozimendurik, ez jendearen aurrean ezta legearen aurrean ere

lanean jardun dutela argitu du. Markoren gurasoek haien bizipenetan oinarrituta azaldu zuten espazioak nolako izan beharko lukeen eta zer behar ase beharko lituzkeen. Hernaniko Udalak Sahatsa Jauregi artistari eskatu zion horren diseinua egitea eta berak “ezin goxoago, ezin sentiberago” eman dio forma.

Hernanikoa izango da Euskal Herrian dolu perinatalari eskaintako bigarren txokoa. “Izan zirelako” jarri diote izena, “existitu zirenen oroimenez”. Hilerritaratik oso gertu egongo da eta elemen-

tu desberdinak izango ditu. Alde batetik, izarrez jositako hesi batek eremua bera bilduko du. Izan ere, izarra da heriotza perinatalaren ikurra. Hilerrira gerturazten den edozein pertsonak, unean bertan eta inolako eskaerarik egin beharrik gabe idatzi ahal izango du bere haurraren izena. “Intimitatean edo nahi duenarekin. Gune bat izango du, lurperatu edo ehortzi ezin izan duen ume horrentzat. Kokatzeko espazio bat. Aitortzarako leku bat. Bisitatu edo agurtzeko espazio bat. Ospitalean utzi behar izan zuen seme-alabarentzat espazio bat izango da”, argitu du Esti Zeberioek. Lurrean beste izar bat egongo da, erdian lurpera doan hodi bat izango duena. Senide eta lagunek gutunak edo testuak edo nahi dutena sartu eta lurperatzea irudikatzen dago pentsatua.

Espazio berriak izango duen helburu bikoitza azpimarratu du Zeberioek: “Dolu perinatala ikusaraztea batetik, eta behar hori duten gurasoei espazio bat eskaintzea bestetik”. Nolanahi ere, argi utzi du benetako aldarrikapena “horrelako espazioen beharrik ez izatea” dela. ●

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK | ESKULTURAK

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

Museoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

INÉS HERNAND

“Umorearen esparruan gure espazio propioak sortzeko gai izaten ari gara, *establismentean* egon beharrik gabe”



Duela bi urte finantza-erakunde batean lan egiten zuen jurista mileurista gisa. Gaur egun, 440 mila jarraitzaile baino gehiago ditu Instagramen, Spotifyko adituenean zerrendan dago *Saldremos mejores* podcastarekin eta Gen Playz saioko aurkezlea da, bertzeren artean, Inés Hernand (Madril, 1992) komunikatzaile eta komikoa. Agenda goraino beteta duen arren, tarte bat egin digu Madrilgo zentroan bere ibilbideaz luze eta zabal solastatzeko.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID F. SABADELL

Madriren jaio zinen, 90eko hamarkada hasieran. Nolako izan zen zure haurtzarora?

Berezia. Alaba bakarra naiz eta nahiko bakartia izan zen. 6 urte bete arte ez nintzen eskolara joan, amaxirekin pasa nuen denbora anitz, gurasoek, biek, lan egiten zutelako. Eskolaz aldatu nintzen sarri, nola ez, nik erabaki ez nituen arrazoiak tarteko. Haurtzaro arruntetan ohikoak ez diren bizipen eta erantzukizun goiztiarrak izan nituen. Horrek inteligentzia emozionala edo enpatia garatzea ahalbidetu zidan, baina, era berean, antsietate kronikoa izan dut beti. Haur bat helduen inguru batean bizitzen jartzen duzunean, egoera kudeatzeko tresnarik ere ez duenean, estutasuna eragiten diozu, halabeharrez. Era berean, pribilegiatua izan naiz, eskolara joan eta zer jan edo non lo egin izateko

aukera izan dudana heinean, edonork ez du izan hori dena...

Noiz hasi zen zure sozializazio politikoa?

Institutu garaian bizi izan nuen esperientzia traumatiko baten harira piztu zitzaidan. Erabat isolatuta gelditu nintzen, DBH 1en, mundu guztiari nazka ematen niolako, mutil bati felazio bat egin ondoren. Erabat *naifa* zen, nire ustez: ez nuen sekula heziketa sexualik izan, gurasoek ez zidaten inoiz hortaz hitz egin, 13 urte nituen eta nire bikotekideari muxu bat eman nahi nion, erabat normala iruditu zitzaidan... Baina inguruko jendeak babestu ordez, irakasleek barne, urde zikina izatea leporatzen zidaten. Noski, eskolaz aldatzea eskatu nuen, bullying-a egiten zidatelako, baina ezinezkoa izan zen. Zorionez, DBH 2n

nire lagunik hoberena ezagutu nuen, Andrea Compton, eta hortik aurrera laguntasun zoragarri bat hasi zen. Errotiko aldaketa egin nuen, estetikoa eta zentzu guztietan. Nire erantzuna iraultzailea izan zen, argi eta garbi, izan ere, hori bazen aurrean nuen gizartea, nik aldatu nahi nuen.

Zertan oinarritu zen aldaketa hura?

Anitz irakurtzen hasi nintzen. Garai hartan, gainera, Madrilgo Erkidegoan Esperanza Aguirre zegoen agintean eta gauza ikaragarriak gertatzen ziren egunero; Madrilgo Asanbleako botazioak lotsagarriak ziren, Alberto Ruiz Gallardón-en kudeaketa publikoaren ondorioz, zorrak geroz eta gehiago ziren... Dena zen doilorra. Testuinguru hartan, irakurketaren bitartez disidentea izaten hasi nintzen, edo, gutienez, dena zalantzan jartzen. Bi-

tartean, gizartea ez zuen ezerk izutzen: nire belaunaldia lozorroan zegoen. Une garrantzitsua izan zen, nire nortasuna eraikitzen hasia nintzelako orduan.

Komunikazioan ari zara lanean gaur egun, baina Artearen Historia eta Zuzenbidea ikasi zenituen. Nolatan?

Kazetaritza ikasi nahi nuen baina notak ez zidan eman unibertsitate publikoan sartzeko, bortz hamarren faltatu zitzaiz-

kidan... Madrilgo Complutense unibertsitatean bi urtez ikasi nuen Artearen Historia eta, gero, UNEF unibertsitateira aldatu nintzen, Londresen pobrearen Erasmusa egiteko. Gurasoek Zuzenbidea ikastea nahi zuten, eta noski, 21 urte nituela, aitak erraten bazuen nik egindako bihurrikeria guztiak -alegia, bat ere ez-barkatuko zituela eta estimuz begiratu-ko ninduela, komuna miazkatzeko gai nintzen. Okerrena da bi urte geroago

berriro ere solastatzeari utzi zidala, eta gaur arte. Baina ikasketak bukatu nituen eta baliagarria izan zitzaidan. Gero abokatutzaren masterra egin nuen, zuzenbide publikoan espezializatu eta bulego batean sartu nintzen. Lazgarria izan zen, bertan prekarizatuta nintzen erabat, eta erakunde finantzario batean jurista milerurista gisa hasi nintzen lanean. Gero etorri ziren pandemia eta sare sozialak. Eskerrak lanak aukeratu nauen ni, bertzela...



Lan testuingurua erabat aldatu zaizu bi urtetan.

Bai, baina gauza bat argi dut. 16 urte nituenean hasi nintzen lanean. Egia da gauza anitz aldatu zaizkidala: soldata, lan baldintzak, eta ehundaka kontu gehiago hobetu zaizkit. Baina lanarekin konpromiso bera dut orain eta KFC Fried Chicken jatetxean patatak frijitzen edo komunak garbitzen nituenean.

“Nire pribilegioak erabiltzen ditut isilduta dauden gutxiengoak ikusarazteko, umoreari tartea utzita”



Gazteengana zuzentzen zara, gehienbat. Prekaritatea nagusi da han eta hemen.

Bai, eta berdin dio lanbide arteko gutieneko soldata 5, 15 edo 100 euro igotzen badute. Etxebizitza merkatua arautzen ez den arte, edo gutieneko errenta unibertsala edo osasun mentalekin zerikusia duten bertze hainbat eskubide bermatzen ez diren bitartean, ezin da prekaritatea bukatu. Ni, zentzu horretan, pribilegiatua sentitzen naiz eta pribilegio horiek erabiltzen ditut isilduta dauden gutxiengoak ikusarazteko, beti ere, umorearentzat tartea utzita.

Agerpen mediatikoak nola eragiten dizu emozionalki?

Zorionez, heldua izanik harrapatu nau. Amets bat da, sistema prekarizatuta dagoelako erabat. Baina zuk jakin nahi duzu tenteldu naizen, ezta? Tira, ni ez naiz kaletik ikaragarri jazarrita dagoen profila, jendea orokorrean adeitsua izaten da nirekin topo egiten duenean. Eta

bai, pitzatuta nago gauza txikiekin, adibidez, kapritxoekin. Orain ahuakatea jan dezaket astero, astearte batean jabetxe begano batean afaldu dezaket edo bidaia bat egin... Funtsean, eskertuta nago eta une hau besarkatzen dut ez baitakit bihar zer gertatuko den...

Zure agerpen publikoetan ahoan legarrrik gabe hitz egiten duzu. Beldurtzen zaitu horrek lan eskaintzak gutitzea?

Independentea naiz, zu bezala. Autonomo gisa lan egiten dut eta hori da nire balioa. Badira hainbat espazio aintzakotzat hartzen nautenak eta bertze batzuk ez. Baina, noski, kezkatzen nau, batez ere hasieran. Adibide bat jarriko dizut: duela guti, Forbes Best Influencers 2022 gala aurkeztu nuen, eta eurak ez dira bereziki nire kausaren zaleak... Baina, nik eskertzen diet espazio hartan egoteko aukera eman zidatelako, sinbolikoki garrantzitsua baita; ez ninduten proposatu banatu zituzten sarietarako, baina, hainbat kontutatik erabat urrun bizi diren eta ikaragarri pribilegiatuak diren *influencer* anitzen ondoan egoteko aukera izan nuen. Eta ni bezalako neskatila batek, bere garaian zerbitzaria izan zena, etxeak garbitu edo kuleroak lisatu zituena, gala hori aurkeztea erranguratsua da.

Prekaritatea aipatzen duzula, elkarrizketa hau eskatu genuenean, zure estilismo eta makillaje gastuak ordaintzeko 300 euroko aurrekontua eskatu ziguten. Elkarrizketa egiteagatik nik gutiago irabazten dut; kazetaritza dagoen moduan, ez dakit norbaitek ordaindu ahal izango duen. Ez, ez zuk, ezta Prisak ere. Baina estilismo eta makillajearena irizpide bat da, bertze edozein bezala. Horregatik, elkarrizketa egiten ari gara saio bat bukatu ondoren, makillatuta natorrela aprobe txatuz. Agerpen publiko bat egiten dudanean zaindu nahi izaten dut nire irudia, bertzerik gabe. Noski, erran beharrik ez dago 300 euro horietatik nik ez dudala ezer ikusten. Eta, bai, *performance* honetan egongo da gezurrezko betileak jartzea proletarioegia ez dela pentsatuko duenik, baina niretzat irudi estetiko politikoa da. Eta, bide batez, horrek ere lana ematen dio talentu handiko hainbat gazteri.

Hori bai, eskertzen dizuegu estilismoa ordaindu gabe, elkarrizketa egiteko

aukera eman izana.

Noski, horrela egiten dugu beti. Nik ere eskertzen dizut galdera hau, argitzeko aukera ematen didazulako. Posible duguna egiten dugu, eta funtsean, hori da bizitzeko gutieneko errenta.

2021ean RTVEren Playz espazioak entretenimendu programa hoberenaren saria irabazi zuen. Zeurea ere bada saria, Gen Playz aurkezten baituzu. Nola jaso zenuen?

Hagitz harro. Bide batez, aldarrikatu nahiko nuke kazetarien lana. Sari hagitz garrantzitsua izan zen talde guztiarentzat. Gen Playzen 240 saio baino gehiago egin ditugu eta anitz lantzen ditugu etortzen diren profilak. Ezinbertzeko saioa da, eta ongi funtzionatzen ari da.

Kazetaritzaren osasunak kezkatzen zaitu?

Izugarri. *Fakenews*-ek eta *clickbait*-ek kezkatzen naute, eta gutieneko irizpidea duen edonori kezkatzen dion guztiak, noski. Baina, era berean, harrotzen nau kazetaritzaren hainbat sektorek borrokatzen duzuen guztiak, profesional independenteak izan eta kalitateari

kopuruari baino garrantzia handiagoa emateko.

Plataforma digitalek kontsumo joera aldatu dute. Badago uste duenik hedabideak ordezkatzeko etorri direla. Zer deritzozu?

Inolaz ere ez. Espainian 45 milioi biztanle daude, horietatik 5 milioi 15 eta 25 urte bitartekoak dira eta kontsumo jakin bat egiten dute. 25 eta 35 urte bitartekoek bertze gauza batzuk kontsumitzen ditugu, seguruenik zerbait mistoagoa.

“Egongo da gezurrezko betileak jartzea proletarioegia ez dela pentsatuko duenik, baina irudi estetiko politikoa da niretzat”





Eta, 65 urte baino gehiago dituztenek, zehazki biztanleriaren %20ak, prentsa idatzia eta telebista tradizionalagoa ikusten dute gehiago. Tira, ezin dut etorkizuna aurreikusi, baina, gaur egun, ezin hobeki elkarbizitzen dira.

Azkenaldian plataforma digitalen eta sare sozialen bitartez ikusgarritasuna lortu duzuen emakumeen belaunaldi berriko kide zara. Merezi dugun tokia hartzen ari gara?

Penelope Cruz aktoreak *Pikara Magazine* kazetari Andrea Momoitiori errantzion bezala, ez. Inolaz ere ez. *Establishmentean* ez dago espazio konpartiturik. Are gehiago, saihesten ari da. Gertatzen dena da orain arte bazegoela erabat ahaztuta zegoen audientzia bolumen jakin bat eta, bat-batean, kontsumitzen hasi da. Adibide argiak dira *Estirando el Chicle* edo Nerearekin [Pérez de las Heras] batera aurkezten dudana *Saldremos mejores*. Gizarte eta politika espazioak dira eta astero entzute handiak dituzte. Interesa pizten dute.

Komedia betidanik izan da eremu matxista. Joera aldatzen ari da?

Noski, eta orain ez dago umorearen *kontraeredurik*. Hau da, duela hainbat urte Patricia Conde zegoenean, bere *kontraeredua* izan zen Eva Hache. Baina, gaur egun, ereduak erabat lausoak dira. Badago jendea minbiziaz solastatzen dena, edo jendea makillatzeko esponjak hizpide dituen, eta grazia egiten dute berdin-berdin. Hori ere gertatu da sare sozialen demokratizazioari eta gaur

“Emakumeoi subjektu politiko gisa akatserako tarte gutiago uzten digute”



egungo kontsumo ereduari esker. Baina, hala ere, emakumeen partaidetza handitu beharra dago, oraindik ere.

Emakume izatea zailagoa da umorista zarenean?

Emakume izateak zailtzen du edozein gauza egiteko sarbidea, batez ere, ikuspegi interseksionalek egiten baduzu. Eta, emakumea izateaz gain, arrazializatua bazara eta seme-alabak badituzu, zer erranik ez! Baina, erranguratsuen da umorearen esparruan geure espazio propioak sortzeko gai izaten ari gara, *establishmentean* egon beharrik gabe. Garai batean jendea irrikatzen zegoen Wyoming-en alboan egoteagatik, gaur egun podcast bat egiten du eta kito.

Bukatu aurretik, nola bizi duzu Madrilgo testuinguru politikoa?

Ziurgabetasunarekin, beti bezala. Diktaduraren ondotik ez da testuinguru politiko lasairik egon Espainian. Gaur egun, Espainiako Kongresuan erdiak *neokaudilloak* dira eta bertze erdiak jen-

de bitxia. Badago konpromiso politiko handia duen baten bat, politika afektutik eraikitzeko saiakeran dabilena, baina ikaragarri zaila izaten ari da gizarteari helaraztea. Eta, gainera, gazteek paso egiten dute. Ikaragarria da.

Testuingurua polarizatuta dago erabat. Feminismoa ere hala ikusten duzu?

Polarizazioak eztabaida guztiak suntsitzen ditu, eta feminismoa ez da libratzen. Eta pribilegio patriarkalak betikotzeko interesak hori bilatzen du, mundu guztiari helaraztea baietz, feminismoa polarizatuta dagoela. Baliteke hainbat kontutan kontsentsua egotea, baina, proiektatzen den irudiak egoera larritzen du eta, azkenean, emakumeon eskubideak babestu nahi dituen mugimenduen sozialaren fokoa galtzen dugu.

Duela guti *Estirando el Chicle* saioak sortu zuen eztanda ikaragarria, polemika baten ondorioz. Gidatutako kanpaina mediatikoa izan zela uste duzu?

Zalantzarik gabe. Komunikabideak, eza gutza sakonik gabe, polemikak ugaltu eta epaitzeko arduradun nagusiak dira. Kasu horretan ez dut gehiegi sakonduko, baina, argi dut emakumeoi subjektu politiko gisa akatserako tarte gutiago uzten digutela eta foku handiago jartzen dutela guregan. Eta hori ikaragarria eta erabat bidegabekoa da, lagun anitz baztertzeko arriskua dagoelako, arrazoi sinple batengatik: hanka sartzeko beldur izatea. ●

'BEREZKOA TA NATURALA'



DANI BLANCO

Ezkerretik eskuinera: Aner Peritz, Oihana Arana, Leire Vargas eta Haizea Arana. Astero eseriko dira ARGIA-ren Lasarte-Oriako estudioan, 'Berezkoa ta Naturala' podkastarekin Bertsolari Txapelketa Nagusia jarraitzen.

Lauko handia

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez dut Bertsolari Txapelketa Nagusia jarraitzen. Kito, bota dut. Bai, itxura batera betetzen omen ditut BTN-ren jarraitzaile izateko neska gazte euskaldunaren estereotipoak. Ez zara aurrena hori esaten. Ez, Anari ere ez dut entzuten. Bai, arraro xamarra naiz. Ez erratu, bertsozalea naiz, baina puntuaziorik gabekoak maiteago ditut, afalostean behelaino artean entzuten diren horien zalea. Dena den, ARGIAk lortzen du txapelketa tokatzen deno engantxatzea programa berri batera. *Hitzetik Hultzera*, *Damutuko zaizute*, *Zautela...* ea *Berezkoa Ta Naturala* saioarekin ere lortzen duten.

Haizea eta Oihana Arana, Leire Vargas eta Aner Peritz esertzen dira astero ARGIAko platoon, kameren aurrean, irratsaio edo podkast bat egiteko asteburuko finalaurrekoaren inguruan. Serio eta ez horrenbeste. Gidoi kontzientetik abiatuta, jario ederrarekin eta bat-batekotasunaren indarra baliatuz, gatz eta piper handiko saioa osatzen dute lau bertsolari gazteek. Asteartez egiten da publiko ikus-entzunezko berria, 20:00etatik aurrera.

Ordubete inguruz aho-bilorik gabe harilkatzen dituzte Bertsolari Txapelke-

ta Nagusiko finalaurreko saioei buruzko analisia, kritika, umorea, eztabaida... Bertso saioetan grabatutako elkarrizketei ere tarte egingo die saioak eta astero ikus-entzuleei lehiaketa bat ere proposatuko zaie, datorren finalaurreko bertso saiorako sarrerak eskuratzeko aukera emango diena.

Umoreak baditu arrisku batzuk eta lehen emanaldiaren hasieran lau gazteek argi utzi nahi izan dute badakitela errazagoa dela beraien platotik hitz egitea eszenatoki gainean kantatzea baino. Dena den, hemendik aurrera hartuko dute kaxondeo pixka batekin BTN eta analisi zorrotz eta serioa egiteaz aparte, izango du irriak ere bere espazioa eta ez txikia, inor mintzeko intentziorik gabe, baina labana txikiak airean.

A! Ahaztu gabe, inork ikusi badu Xabier Amuriza Goenaga jogurta janez saio hauek iragartzen eta txistea ez baduzu harrapatu, besterik gabe, jogurtak naturalak direla eta hori guztia, baina, batez ere, Goenaga Yogur laguntzaile dela, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila eta Euskarabidea, Euskaren Nafar Institutua (Nafarroako Gobernua) babesle direnarekin batera. ●




NAKI LL

'Pantailaldia' ekimenarekin bat egin du ARGIAk

Pantailatik jasotzen dugun hizkuntza ohituretan "zuzeneko eragina" duela iritzita, astebetek euskarazko ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta horretarako dauden zailtasunez ohartarazteko xedez abiatu du *Pantailaldia* ekimena Pantailak Euskaraz elkarteak. Azaroaren 11tik 13ra bitartean izango da, hain justu Euskalraldiaren atarian, eta parte hartzeko Pantailakeuskaraz. eus atarian eman daiteke izena. Beste hainbat jardura ere egingo dituzte egun horietan, eta azaroaren 13an protesta bat egingo dute, euskaldunek zinemetan bizi duten "diskriminazioa" salatzen.

ARGIAk bat egin du ekimenarekin. Izan ere, *Pantailaldia* bezalako ekimenak bete-betean datoz euskarazko edukiak ahalik eta gehien zabaltzeko egiten dugu ahaleginarekin. Bada hamarkada bat baino gehiago gure webgunean dokumentalak, hitzaldiak, ekitaldiak eta film-laburrak eskaintzen hasi ginela, libre eta doan euskaraz ikusi ahal izateko. Gaur egun, komunikazio proiektu hau babesten duen komunitateari esker, ehundaka ikus-entzunezko ditugu nahieran Argia.eus/multimedia kanalean.

Hooverren mende eutsiezina



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

AEB, 1922ko azaroaren 24a. Hoover Konpromisoa sinatu eta Colorado ibaiaren ibilguan, Arizona eta Nevada estatuen mugan, presa bat eraikitzeko batzordea sortu zen. Urterro, Mendi Harritsuetako elurrak urtzen zirenean, Colorado ibaiak gainezka egiten zuen, inguruko laboreak arriskuan jarritz. Uholdeak saihesteaz gain, presa batek eremu idorretan sail ureztatuak zabaltzeko aukera emango zuen, Los Angeles nahiz Hego Kaliforniako beste komunitate batzuk urez hornituko zituen, elektrizitatea sortuko zuen...

Boulder izena jarri zioten hasieran presari, baina negoziaketetan Herbert Hoover merkataritza idazkaria izan zen gobernuko ordezkaria –gerora AEBetako presidente izango zena– eta, azkenean, hitzarmenari bezala, presari ere Hoover esan zioten.

Coolidge presidenteak sei urte geroago, 1928an, onartu zuen legez proiektua, baina eraikitzeko lanak abiarazteko baimen ofiziala 1930ean lortu zen, Hoover presidente zela, aurreko urtean ez tанда egin zuen krisialdiari ez ikusiarena eginez, edo, nolabait, Depresio Handia aitzakiatzat hartuta, horrelako obrek egoera arinduko zutela argudiatuz. Hala, 1933an beste proiektu hidrauliko erraldoi bat abiarazi zuten eta Tennessee Haraneko Agintaritza sortu, izen bereko ibaiaren urak ustiatzeko.

Hoover presaren obra faraonikoa 1936an amaitu zuten, 3,33 milioi m³



TRAVEL NEVADA

hormigoi eta 49 milioi dolar (egungo 900 milioi gutxi gorabehera) erabili ondoren.

Baina agian “faraoniko” adjektiboa ez da egokiena Hoover presaz hitz egiteko; egiptoarrek Nilo ibaiaren gorabeherak aprobetxatzen zituzten arren, egungo uraren kudeaketa politikek antzinako Erroman dute jatorria. Horixe dio Giulio Boccaletti ikerlariak *Water. A Biography* (Ura. Biografia bat) liburuan, uraren kudeaketaren historia biltzen duen lanean.

Boccalettiren ustez, uraren historia ez da teknologikoa, politikoa baizik, XX.

mendean hedatu den ereduak oinarri teknologikoa izan arren. Eredu hori, ingeniariak proiektu handietan oinarritua, AEBetan sortu zen, Hoover eta Tennessee medio, eta mundu osoan hedatu. “Mende hidraulikoa” esaten die Boccaletti azken ehun urteei.

Paradigma hori agortzear dagoela uste du eta etorkizuneko ereduak Txinatik etor daitekeela. Ikerlariak dio ura kudeatzeko sistema inkognita bat dela oraindik, baina garbi dauka Hoover presak duela 100 urte irekitako bidea ez dela jasagarria. ●



DONBATEKO TRIKUHARRIA

7.400 urte esnea edaten

Gizakiak Neolitoaren hasieran hasi ziren beste ugaztunen esnea kontsumitzen, *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian argitaratu berri denez. Bristolgo unibertsitateko Emmanuelle Casanova buru duen ikerlari taldeak Erdialdeko Europako 70 aztarnategitako 4.300 zeramikazko ontzi aztertu ditu elikagai arrastoen bila, eta ondorioztatu du duela 7.400 urte esne

kontsumoa ohikoa bihurtu zela inguru haietan, nahiz eta ez zen aldaketa homogeneoa izan. Europako Ikerketa Kontseiluko NeoMilk proiektuaren barruan egin da ikerketa eta, oraindik gaur egun gure dietan eragina duen funtsezko aldaketa hori ulertzen laguntzeaz gain, elikagaiak lortzeko praktiketan izan ziren aldaketei buruzko informazioa ematen du. ●

LOREAREN HISTORIA BAT: KASTARI EUSTEKO SENA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Loreak ez dira guretzat eginak. Orain, udazkenean hain ugariak ditugun fruituak bezalaxe: horiek ere ez dira guretzat eginak. Landareek fruitua sortu eta hazten dute beregan doazen haziak hedatu eta bere espezieari eutsi eta etorkizuna emango dioten norbanako berriak jaio daitezten. Guk hazia- ren bide horretan esku hartu eta sartu eta fruitua jan edo zukutu egingo dugu, agian hazien zabalkundearekin lagunduz.

Fruitua, edozein, loreak ekarriko du. Lore izan ez den fruiturik ez da. Bada, ordea, lorerik ematen ez duen landaretik. Likenak (auka, goroldio zuria...) eta goroldioak duela 500 milioi bat urte sortutakoak dira; ugaltzeko ez dute lorerik erabiltzen, esporak baizik, perretxikoen eran. Geroxeagokoak dira garoak; horiek ere esporak dituzte ugaltzeko. Duela 300 milioi bat urte lehen landare loredunak agertu ziren. Lehen lore bakun haiek haizea behar zuten polinizazioa gauzatzeko. Lore arrak eta emeak landare berean bereizita daude, eta haizeak eramango du arraren polena emearenganaino. Haizeak nondik joko duenaren menpe egonik, polen kopuru ikaragarriak sortzen dituzte. Taktika hori dute koniferoek, baina baita hurritzak (*Corylus avellana*), haritzek (*Quercus spp.*), pagoak (*Fagus sylvatica*), urkiek (*Betula spp.*) eta abarrek ere. Ikusten zailak diren loreak dira, eta lore arrak gerba zintzilarioak, haizetan polena bantatzeko.

Gerora mundua erabat aldatuko zuen mudantza gertatu zen: bero latzak etorri ziren. Loreetako polena eta aieka emea lehortu eta erre gabe babesteko orain ezagutzen ditugun loreak sortu zituzten landareek. Estrategia berria: loreak petalo, sepaloz, eta abarrez babestea. Babeste horrek haizeari protagonismoa apaldu zion, ezin behar bezala bere lana egin; eta ordezkokoak topatu behar izan zituzten: dagoeneko inguruan zebilkizkiten intsek-



tuak. Intsektuak loreetara erakartzeko ikaragarriko jaialdiak antolatu behar izan zituzten: usaina, intsektua bikote bila hasten denean arrakasta izaten lagunduko diona; kolorea, urrutitik ikus- teko modukoa, baita eguzkiaren beroa jasoko dutenak ere (zuria eta horia, batez ere); sariak, "txerrimunik ordainetan" alegia, polena eta nektarra intsektuak elikatzeke. Batzuek hegaztiak polinizatzea nahi dute, eta tutu antzeko lore luzeak dituzte. Bestetarik gauzez loratzen dira, sitsek eta saguzarrek poliniza ditzaten. Eta, berriro diot, loreak ez dira gure gozamenarako eginak.

Lan horiek denak, landare bakoitzak munduan utzi nahi duen arrastoa gauzatzeko bidean jartzeko. Izan ere landare bakoitza, ez espezie baizik eta norbanako bakoitza berezia da; bakoitzak bere lana amona eta aitona ditu eta bere kastak irautea nahi du. Bere lore emetik fruitua oparo eman eta arretik polena ahalik eta modu eraginkorrean hedatu, beste lore eme ugari polinizatzeko. Bere geneak gerora ere izan daitezten nor.

Gero etorri zen pertsona modernoek "espeziea", gurea, duela 200.000 urte baino gutxiago. Eta kastari eusteko landareen sena ihakindatu genuen, eta dugu. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo
Jakobari galdetu nahi nioke, ea hurritz makilak egiteko ze hilabete den egokiena eta ilbehera edo ilberri, zer izan behar duen.

Eskerrik asko

✍ **Maria Pilar Perurena**

Esakerak dio urrian hasten den ilgoran ebaki behar direla hurritz makilak. Ilgora hori urriaren 30ean hasiko da eta azaroaren 12 arte luzatuko da. Hurrengo ilgora ere ez da txarra izango, azaroaren 27tik abenduaren 9ra artekoa.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDO, 'ILARGIA ETA LANDAREAK' 2023KO AGENDAZ

“ANIMALIEN BEHARRA DUGU BARATZE OSASUNTSU ETA BIOANITZA IZATEKO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



DANI BLANCO

Honezkeroko 2023. urtera begira jartzeta gehitxo irudituko zaio norbaiti akaso, baina errealitatea da bi hilabete eskas falta direla urte zaharrari agur esateko. Baratzea, landareak, lorategia nahiz fruta-arbolak dituztenentzat ia ezinbesteko tresna bihurtu den Ilargia eta Landareak agenda berria kalean da, ohiko legez, Jakoba Errekondoren testu eta gomendioekin eta Antton Olariagaren irudi ederrekin jantzia. ARGIAko Azokan edo ohiko liburudentetan topatuko duzue. Hona hemen Errekondok agendaz kontatutakoak.

Despistaturen bat badabil hortik... Zer da Ilargiaren eta Landareak agenda?

Baratzean, lorategian, fruta-arbolatan eta basoan urte guztian egin beharreko

lanak azaltzen dituen agenda da, eta, aldi berean, agenda soil bat, norberak bere gauzak apuntatzeko: dela esaera bat, dela norbaitek probatu duela esan digun barietate baten izena, dela... hori guztia, gainera, ilargiaren ilgora eta ilbehera faseei lotutako argibideekin. Azkenean, norberaren landare tokia desberdina eta bakarra da, eta agenda honek horretaz ikasteko aukera ematen digu.

Zein atal finko ditu?

Ilargiaren zikloen azalpenak daude, hilabete bakoitzean baratzean, fruitu baratzean, basoan eta lore baratzean egin beharreko lanenak ere bai –astero garai horretako lan bereziren batean gehiago sakontzen da, gainera–, sasoi bakoitzaren inguruko esakerak bildu ditugu, hilero garaiko eta bertakoak diren barazkiak esplikatzeko... bukaeran, ikasteko zenbait atal ere baditugu: luarra nola egin, landare bakoitzak zenbat ongari behar duen, zeintzuk diren landare laguntzaileak, landare bakoitzaren lanak noiz egin behar diren, hiztegitxoa... betiko atal horiek mantendu ditugu.

Animaliak dira 2023ko agendaren gaia, ezta?

Bai, urtero gai bat jorratzen dugu agendan, eta 2023koan animalia laguntzaileak izanen dira: gure lorategi eta baratzeetan lagungarri diren animaliak nola erakarri ikusiko dugu. Hilabetero animalia bat aipatzen da eta horri buruzko istoriotxo bat dago Antton Olariagaren marrazki ederrez lagundua. Urubia, saguzarra, txantxangorria, okila, lertxuntxoa, xixareak, apoa, armiarma eta triku landu dira, esaterako.

Izan ere, funtzio garrantzitsua dute animalia horiek guztiek...

Hori da, zein lan egiten duten eta zein abantaila dakartzaten azaldu dugu agendan, jendeak jakin dezan baratze osasuntsu eta bioanitzago bat izateko animalia horiek zaindu eta erakarri behar ditugula. Gaitzak eta izurriteak kontrolatzen dituzte eta oreka mantentzen dute. Agian, baratzean intsektuak izan ditzakegu, baina ez dira izurrite bihurtuko, elkar kontrolatzen dutelako, eta ondorioz, pestizida eta produktu guxtiago erabiltzen dugu eta lana bera gutxitzen. Azkenean, baratzea ez da gauza isolatua, ingurumen osoaren zatitxo bat besterik ez da. Hor dabilta animalia denak, eta guk ere horrela ulertu beharko genuke. ●



“ ”

Batzuetan ausardia falta zaigu euskal literaturan

Goiatz Labandibar

Goiatz Labandibarren (Oiartzun, 1985) *Amez* liburuko istorioek ardatz tematiko bera dute, amatasuna, baina esperientzia horren ertz ugari aurkituko ditu irakurleak aurtengo otsailean Alberdania argitaletxean publikatu den ipuin-bilduma horretan. Oiartzunen, Labandibarren jaioterrian, hitz egin dugu idazlearekin.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  DANI BLANCO

Atentzioa ematen du liburua irekitzen duen testuak: baratzeko lehen tomatea eta amatasuna konektatu dituzu. Nola sortu zen ipuin hori?

[Barre egin du] Egia da ez dela espero den zerbait eta horregatik da lehenbiziko narrazioa, pixka bat eskemak hausteko ere izan daiteke. Abiapuntu erreala dauka istorio horrek: duela lau bat urte baratzea egiten hasi ginen, tomateak jarri genituen eta lehenengoa sortzen ikusi nuenean kristoren emozioa sentitu nuen. Kuadrillako bati, zeina ama zen, esan nion: “Orain ulertzen dut zer sentitzen den lehen ekografia ikustean”. Berarentzat sumingarri samarra izan zen komentarioa, tomate batekin konparatu nuela-ko bere alaba, baina... niretzat momentu zoragarria izan zen hura, eta hortik idatzi nuen istorioa. Beste liburuetan ez dut egin izan, baina honetan erabaki kontziente bat hartu behar izan nuen idazten

hasi nintzenean, banekien narrazio-sorta bat idatzi nahi nuela amen inguruan eta ipuin hau hasieratik sartu nuen.

Benetako gertakari batean oinarritutako ipuin horrez gain, gutako askok ezagutu dezakegun jende mota ere agertzen da *Amez-en*. Istorio guztiek daukate abiapuntu konkretu bat eta askok abiapuntu errealek, nahiz eta denak fikziozkoak diren. Hori ere bilatzen nuen, demostratzea bizitza erreale honetan ez dagoela inor perfektua denik, eta horregatik inor ez dela okerragoa. Baina bai, ipuin horietan daude nire ama, nire amona, nire lagunak... pertsona errealeak, nahiz eta oso makillatuta agertu eta oinarri gisa pertsona horien gertakari txiki bat hartu.

Amatasuna ipuin guztietan agertzen den arren, oso ardatz desberdinekin

agertzen da artikulatuta. *Kanpokoak* ipuina, adibidez: bere umea hil duen ama baten istorioa da, baina arrazakeriari buruzkoa ere bai.

Esan izan dut gai unibertsalenaz hitz egiten ari naizela liburu honetan, mundu guztiak duelako ama bat, aitortua edo ez aitortua. Eta badago sineskeria bat-edo, esaten duena emakume bat ama denean ama besterik ez dela. Baina emakume horrek pertsona izaten jarraitzen du, bere zaletasunekin, bere fobiekin... bere izatearen parte izango da amatasuna, baina beste zati askok osatzen dute emakume hori. Orduan, ezinezkoa da ama bati buruz idaztea beste gauzei buruz hitz egin gabe.

Justu istorio horretan, autokritika bat ere badago gure gizarteari eta ditugun estereotipoei. Amatasunaren inguruan badaude dekalogoak zer den ona eta zer den txarra esateko, baina denaren inguruan dauzkagu horrelakoak: zer den



onargarria, bertakoak ze onak garen, kanpokoak ez direla hain onak, baina batzuk hobeak direla... Eta azken finean aitzakia ona dira gizarteari begiratzeko eta hausnartzeko.

Rosa Luxemburgen bizitzako azken uneak fikzionatu dituzu Antonina ipuinean. Zer interesatu zaizu haren bizitzatik material literario gisa?

Angela Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea* [Elkar, 2016] irakurri nuenean, ikusi nuen Luxemburgek nola aldarrikatzen zuen "natalitate-greba" egitea. Horrek arreta eman zidan, ez nuen sekula entzuna, eta proiektu honekin hasita nengoen dagoeneko. Gero irakurri nituen Sophie Liebknecht-i kartzelatik

idatzi zizkion gutunak eta hasi nintzen bere bizitzan sakontzen. Figura historiko bezala ezagutzen nuen, baina Rosa Luxemburgek ez balu natalitate-greba hori aldarrikatu izan, nik ez nuen istorio hori sortuko. Berak horretaz egiten zuen tesia oso interesgarria da, zergatik greba bat, zer kate moztuko litzatekeen. Ez zuen arrakasta handirik izan ezta beraien zirkulu politikoetan ere, baina pentsatzen jartzen bazara, erabat logikoa da aldarrikatzen zuena. Gainera Luxemburg ez zen inoiz ama izan, erabaki kontzientea izan zen berarentzat amatasunari uko egitea, eta hori ere amatasunari buruz hitz egiteko modu bat zen. Gaur egun gehiago hitz egiten da horretaz, baina oraindik badituz bere tabuak.

Ez da liburuan jazarpen politikoa jasan duen emakume bakarra, *Desagertuak* ipuina da beste adibide bat. Errepresioak amaren identitatea nola puskatzen duen kontatu nahi izan duzu; edo nola egiten dion uko emakume batek bere ama figurari militantziagatik?

Esango nuke beste zerbait dela: nola egoera horrek, jazarpen politikoak, kasu honetan emakume horri aukera ematen dion beste identitate bat sortzeko; eta aurrerako bizitzatik uko egin nahi dien gauzei uko egiteko, tartean bere alaba. Bueno, bere alabari eta bere nortasun guztiari. Erabat fikziozko istorioa da, ez dago benetako historia batean oinarritua, baina interesgarria iruditzen zait damutzeko aukera hori eta uko egiteko aukera hori, ulertuko ez genukeena -eta igual istorioan ere ulertzen ez den zerbait bezala aurkezten dena-.

“ ”

Kuriosoa egiten zait euskal literaturan ze gutxi idatzi den aitei buruz, adibidez; ze gutxitan jarri duten Euskal Herriko gizonezko idazleek begirada aitatasunean

Perfektua ipuineko protagonistaren erabakiaz ere antzeko zerbait esan liteke: haur bat eduki ondoren, bigarren ume batez haurdun geratu eta abortatzeko asmoa dauka.

Uste dut asko hitz egiten dela ama izatearen hautuaz eta abortatzeko aukeraz, baina ematen du abortua gazteentzako zerbait dela, nahi gabe geratu bazara eta zure bizitzan oraindik ez bada momentua. Edo drama baten ondoren egiten den zerbait bezala, bortxaketa bat jasan duen norbaitek hartzen duen erabakia bakarrik balitz bezala. Eta ipuinean planteatzen da ea haur bat baduena gehiago izatera kondenatuta ote dagoen. Berak ama ona dela dio, baina ez du nahi beste umerik, eta uste dut horrelako gauzak oraindik ez direla onartzen.

Horrelako gaiez aritu arren, ironia eta umore asko dario liburuari.

Ironia oso tresna erabilgarria da gure miseriak azaleratzeko modu sotilagoan, inor hainbeste mindu gabe, bortitza izan gabe. Eta barre egiteko ere bai, zeren gero hor jende askok bere burua ikusten du islatuta. Horregatik erabiltzen dut dezente nire idatzietan. Askotan sumatu izan dut inguruan, ama izateari buruzko zerbait txarra kontatu behar denean, erruduntasun askorekin kontaktzen dela, sakrilegio bat egiten ariko bazina bezala, zeren, teorian, "zure bizitzako gauzarik onena" izan beharko luke; eta hori traizio egiten ariko bazina bezala da. Eta liburua argitaratu denetik jendeak esan dit bere burua ikusi duela ipuin batzuetan. Eta onera. Egia esan, istorioen mamia orokorrean ez da bereziki dramatiko, detaile txikiak dira, eguneroko bizitzako gauzak. Horrek ere eman dit aukera ironizatzeke.

Fikzioak askatasun handiagoa ematen du agian gai honetaz jarduteko, saiakera-liburuek baino?

Esango nuke berez baietz, nahiz eta liburuaren bukaeran aipatzen ditudan beste zenbait libururen artean badagoen bat, *Contra los hijos* izenekoa (Seme-alaben kontra), Lina Meruane idazle txiletarra: oso dibertigarria da, barre egiten duzu... eta saiakera bat da. Ez dut uste

saiakerak seriotasun absolutu bat inplikatzen duenik. Igual kontua, hori baino gehiago, da orain arte ez dela gehiegi idatzi gai honetaz. Niretzat harrigarria ere bada neurri batean: ama asko agertzen dira literaturan, baina normalean ez dira protagonistak, protagonisten amak baizik, euskal literaturan behintzat. Uste dut Arantxa Urretabizkaia izan zela lehenengoa *Zergatik panpox*-ekin [Hordago, 1979] ama bat protagonista bihurtu zuena, eta ez da kasualitatea. Idazle guztiek interesatzen zaigun gai baten inguruan idazten dugu eta kurio-oso da orain arte asko ez erreparatu izana. Eta adibidez Katixa Agirreren *Amek ez dute*-n [Elkar, 2018] agertzen den ama-begirada hori, nola saiatzen den ulertzeko "ama txar" bat izan daitekeena, uste dut eskertzekoa dela. Elkarrizketa batean baino gehiagotan galdetu izan didate ea gaia orain modan dagoen, eta nik esaten dut ezetz, ez dela modan dagoela, orain arte ez dela idatzi baizik. Eta orain, azken bost urteetan lauzpabost liburu argitaratu dira eta badirudi ez dakit zer pasatzen ari dela. Baina euskal literaturan badaude beste mila gai askotan errepikatzen direnak eta ez zaie moda deitzen. Eta bide batez, niri kurio-oso egiten zait euskal literaturan ze gutxi idatzi den aitei buruz, adibidez; ze gutxitan jarri duten Euskal Herriko gizonezko idazleek begirada aitatasunean.

Liburuko beste ipuin deigarri bat: *Munstroa*. Agripinak lehen pertsona kontatzen du istorioa, baina oso Agripina garaikidea dirudi.

Bai, gainera erreferentzia garaikideak egiten ditu, Freud eta abar. Ez dakit nola iritsi nintzen berarengana. Nik uste hasieran Ediporekin hasi nintzela, amaz maiteminduta daudenen sindrome famatuagatik, baina ez zidan funtzionatu, eta hasi nintzen aztertzen, begiratzen, eta iritsi nintzen Neron eta Agripinaren-gana. Oso gustura geratu nintzen istorio horren emaitzarekin, baina kurio-oso da figura historikoen artean amei eta batez ere amaordeei tokatu zaien papera ez dela oso positiboa izan orokorrean.

Hondartza garaia eta *Labeak* ipuinetan berriz, amek euren umeak erabiltzen dituzte ekintza arriskutsuetan, bigarren ipuinaren kasuan gerra-ekintza batean. Gaur egun horrelakoak tabu samar izango liritekeela iruditzen zait.

Labeak-en abiapuntua Svetlana Aleksievitxen *Gerrak ez du emakume aurpegirik* [Elkar, 2017] liburuan hitzez hitz datorren historia bat da. Ama asko agertzen dira liburuan eta kontaktzen diren historiak askotan oso inpaktanteak dira; eta konkretuki hau irakurri nuenean, eskemak hautsi zitzaizkidan: imajinatzea zazpi urteko haur bat bonba bat jartzera





bidali zutela, eta gainera narrazioa egiten zela hori gorai patuz –ez baita ama kontatzen duena, beraien taldeko beste emakume bat baizik–. “Nola saiatuko naiz ekintza hori ulertzen?”, izan zen batez ere nire ariketa. Gaur egun imajinaezina dirudi, inork barkatuko ez lukeen zerbait. Egia da muturreko egoera batean zaudeanean inork ez dakiela nola erreakzionatuko lukeen, baina ariketa hori izan zen, bera ulertzen saiatzea.

Hondartza garaia berriz, orain kontatuko dut, amona hil denez kontatu daitekeelako: nire amonak egiten zuen, kontrabandorako kotxean seme-alabak erabiltzen zituen. Abiapuntua oso-oso erreala izan zen kasu horretan: hemen urte batzuk atzera egitea izan zen ariketa, ikusteko beharra dagoenean ez dakigula nola erreakzionatuko dugun eta zer egiteko gai den pertsona bat.

Garapen luzeagoko ipuinen artean, badira zuzen-zuzenean mamira doazenak ere. *Hortzak* da horietako bat, ume batek eskolan izan duen istripuaren ondoren sortzen diren erreakzioak kontatzen dituen.

Iruditzen zait gaur egun denak bukatzen duela salaketa batean. Guk dena ondo egiten dugu eta besteak dira gaizki egiten dutenak beti. Eta ez dugu onartzen batzuetan gauzak gertatzen direla, zer-

“ ”

***Gai unibertsalenaz
hitz egiten ari naiz
liburu honetan, mundu
guztiak duelako
ama bat, aitortua edo
ez aitortua***

baiten ondorioz, eta ardurak ere hartu behar direla. Egia da ipuin oso motza dela. Aurreko liburuan ere [*Hori zen dena*, Alberdania, 2019] istorioak oso motz idatzi nituen eta honetan orokorrean luzexego idaztera jo nuen, baina kasu batzuetan, honetan adibidez, kontatu nahi nuena hain zen gauza zehatza, ezin zela gehiago luzatu. Ez ditut deskribapen asko egiten, adibidez, normalean ez zaidalako interesatzen esplikatzeko gauzak fisikoki nola diren. Istorioan garrantzirik ez badu, berdin zait, bakoitzak imajina dezala nahi duena. Batzuetan pentsatzen dut ez dagoela gauza gehiegi kontatu beharrik dena kontatzeko. Uste dut irakurlea inteligentea dela, badu gaitasuna gauzak ulertzeko nik dena esplikatu beharrik gabe.

Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak (Elkar, 2013) zure lehen liburutik hona, zertan uste duzu aldatu dela zure idazteko modua?

Sentitzen dut orain hobeto idazten dudala, konfiantza gehiagorekin. Lehenengo liburua denerako zen lehenengo, bere gauza on eta txarrekin, eta asko zor diot, nahiz eta orain nigandik argi-urteetara sentitzen dudana. Baina, ez dakit hau nola azaldu... esango dut ikastolan erakusten ziguten idazteko modutik gehiago zuela, “hasiera-arazoa-konponbidea” tipiko horretara gehiago jotzen nuela, eta orain geroz eta gutxiago egiten dut hori. Geroz eta gehiago pentsatzen dut: “Nola kontatu nahi dut hau?” edo “agian hau ez da kontatzeko ohiko modua, baina berdin zait”, eta probatu egiten dut. Formarekin gehiago ausartzen naiz, baina gero beti dago beste kontu bat, alegia, euskal literaturan zenbat ausartzen diren forma berrieekin. Uste dut batzuetan ausardia falta zaigula euskal literaturan denoi, ez dut esaten argialetxeen arazoa denik edo idazleena; uste dut erru gutxiena irakurleak duela, azken finean aukeratzen duelako dagoenaren artean. Askok jotzen dugu “nobela nobela da” bezalako gauzak esatera; eta niri liburu hibridoak asko interesatzen zaizkit, baina ez dut uste hemen horrelako asko egiten dugunik. ●



“ ”

Ikusarazi nahi nuke ‘normal’etik kanpo errealitate asko daudela, denak besteak bezain zilegi

Nerea Elustondo Plazaola

Anitzentzat hotza izan den Donibane Garaziko final erdietan bere arrastoa uzten jakin zuen Nerea Elustondok, saioari bestelako diskurtso, ideia eta fokoa proposatuz.

ELIXABET ETXANDI

Donibane Garazi
urriak 29

**Saioko
puntuaketa**

Oihana Iguaran Barandiaran
688,5 puntu

Amets Arzallus Antia
688 puntu

Nerea Elustondo Plazaola
628 puntu

Asier Azpiroz Iztueta
616,5 puntu

Haritz Mujika Lasa
615 puntu

Aitor Etxebarriazarraga Gabiola
612 puntu

Jai Alai pilotalekua
1.350 entzule



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Saio berezia iragan zen ibiakoitzean Garazin. Gustura sentitu zinen ohol-tza gainean?

Sargori xamar egiten zuen, egia esan, ohol-tza gainean. Taularen disposizioa ere ez dakit egokiena ote zen, aurrekaldean pareta geneukalako. Baina nolana-nahi ere, nahiko eroso sentitu nintzen ohol-tza gainean.

Aspaldi txapelketan ibiltzen zarela. Aurtengoari zer berezitasun ikusi diozu?

21 urte pasa dira nire lehen txapelketatik. Ordutik aldatu dira gaiak, bertsolari gehienak, zein diskurtsoak. Buruz ari naiz, baina orduan uste dut sei emakume ginela lehenengo fasean, eta final erdietan hiru. Gaur egun beste kopu-

ru batzutan gabiltza. Azken finean, bai lehen eta bai orain, mikrofono baten aurrean jarri eta bertsoan egin beharra dago.

“Normal izatea baino hobere zorientsu izatea”. Mezu indartsu hau eta beste anitz kantatu dituzu Garazin. Zer trasmititu nahi diozu publikoari?

Gaur egun "normaltasuna" deitzen diogun hori azkenean sistema kapitalistaren interesen arabera eraikitako hitzarmen sozial multzo bat besterik ez da. Beraz, eraikia den aldetik, esan nahi du aldatu daitekeela. Jendeari ikusarazi nahi niokena da "normal" deitzen diogun horretatik kanpo ere errealitate asko daudela gure herrian bertan eta horiek denak besteak bezain zilegi direla.

“Hitz batean jendarreak onartzen ez duen dana” zarela kantatu zenuen ibiakoitzean. Garrantzitsua iruditzen zaizu gizarteak onartzen ez dituen horiei kantatzea bertsolari gisa?

Uste dut bertsolaritza bozgoragailu bat dela, bereziki txapelketan. Larunbatean bertan 1.300 pertsonatik gora ginen, kontuan hartu gabe sareetan edo telebistan izango zirenak. Arreta gehiago edo gutxiagorekin, belarri pare asko ariko ziren esaten genuena entzuten. Iruditzen zait bertsolariak behar duela konpromiso sozial eta begirada basati hori, zentroko ohiko begiradarekin ikusten ez den eratzekoa ikusteko. Ikusteaz harago gainera, gaia bera erdigunean jartzeko. Uste dut ikusten eta sentitzen ez dugun hori askotan iruditzen zaigula ez dela existitzen eta oso zaila egiten zaigula existitzen ez dela uste dugun hori onartzea. ●

Saioko bertsoaldi puntuatuena

Oihana Iguaran ganbarako gaian: Azkenean probatu duzu eta jabetu zara ez dela espero zenuena.

Doinua: Xorieri mintzo zen.

I
Biok hamalau urte ta
biok desio argia
lehen aldiz aritzeko
gogoa zen nabaria
ta muxuka pilatuta
geneukanez ausardia (bis)
prestatu nuen kabia
nik bai, baina nire neskak
ez du bete guraria
galopan hasi aurretik
geratu baita zaldia
ta ez da izan espero
genuen lehen aldia (bis)
geratu baita zaldia.

II
Mutiko batek berez du
hontan aritzeko sena
mila aldiz begiratu
dut pantailatan eszena
eta eraikia neukan
gozamenaren eskema (bis)
nire zilborretik dena.
Ez dut sumatu mugitzen
Alaitzek du(e)n sentipena
ta orain dudatan nago
bietan zein den problema:
edo den gertatu dena,
edo espero nuena (bis)
bietan zein den problema.

III
Askotan espektatibek
ondorio hau dakarte
ni ahaleginduagatik
berak sentitu bitarte
nonbait ez dut erakutsi
nik nahi nukeen beste arte (bis)
ta sua egin behar ke...
Gainera sentipena dut
bera ez dela izan parte
barkamena eskatu diot
ta esan "ez joan aparte,
zurekin saiatu nahi dut
nola egin asmatu arte" (bis)
ez zaitez joan aparte.

Ganbarakoa

Zure aurtengo txapelketari begira, zein Garaziko saioari begira, txapelketa biharamunean zein zaporeekin gelditzen zara?

Garazikoarekin bereziki zapore gazi-gozoa daukat. Zortziko handiarekin gustura gelditu nintzen, zortziko txikian ere. Puntukakoan pixka bat sufritu genuen. Sei puntukoan eta ganbarakoan egindako lanekin ere orohar ongi, bi poto egin izanaren arantza kenduz gero. Ez dakit zenbateraino den politikoki polita esatea baina badaukat sentipena txapelketan ez ote diren hanka sartzeak gehiago zigortzen lorpenak saritzen direna baino.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



IRUN

Azaroak 5, larunbata, 17:00
 Ficoba



Ane
Labaka
Mayoz

Jone
Uria
Albizuri

Maddalen
Arzallus
Antia

Miren
Arretxe
Sarasola

Nerea
Ibarzabal
Salegi


Sustrai
Colina
Acordarrementeria

FINALAURREKOA



LIBURUA

Literaturaz hazten



LUIS MAGAN

ZERRIA

PATXI ZUBIZARRETA

EREIN, 2022

XABIER ETXANIZ ERLE

Lizardi saria eskuratu zuen iaz Patxi Zubizarretaren lan honek; garai berria du gure arteko lehiaketarik zaharrenak eta aldaketako bat dugu bi urtean behin gazteentzako obra bat sarituko dela eta hurrengoan haurrentzako. *Zerria* gazteei zuzenduriko lana dugu, irakurle konpetentea eskatzen duen liburua; errazkeriatik aldentzen den literaturazko lan landua.


Alpeetan kokatzen da istorio honen hasiera, glaziar batean agertu diren bi giza gorpu eta hartz baten hezurdurarekin. Bereket neska glaziologo gazteak bi gorpuak ikustera doanean ikerketa baten zurrunbiloan ikusiko du bere burua: "Eta nik artean ezin jakin deskubrimenduak hasi baino ez zirela egin. Ezin jakin albisteak dagoeneko haginka

egina zidala. Eta ez ninduela askatuko".

Zubizarretak Alpeetatik Euskal Herrira eramango du Bereket, eta ondoren Parisera, izotzetan agertu diren bi pertsona haien tragedia argitzeko. Tragedia bat baita Gaxuxa eta Mixelena, tragedia haien haurra zerri batek hiltzea apaizaren laguntzaz, tragedia edo mendekua apaizaren heriotza... baina ez dut hemen esango nobela interesgarri eta aberats honen nondik norakoa, ez dut hemen aipatuko irakurleak misterioa argitzeko egin beharreko ibilbidea; bakarrik aipatuko dut narrazioak, Bereketen kontakizunak, aspaldiko garaiaz baino gaurko egunez ere gogoetarazten digula, liburuko komentarioak, konparazioak, anekdotak, historiak eta istorioak lagun ditugula

kontakizunean zehar, hau aberastuz, hau hobeto ulertzen lagunduz, irakurlearen gozamenarekin areagotuz. Eta asko dira horrelakoak nobelan zehar, inuitak nola harrapatzen dituzten otsoak, arranoaren eta erbinudearen arteko borroka, nola zeramaten izotza Ipar Ameriketatik Indiaraino, zerriek hildako umeen istorioak... eta pertsonaien gogoetak, Gaxuxa eta Mixel kontratatu zituen zuzendariaren, "Orduan pentsatu nuen bizitzen jarraitzea, batzuetan, hiltzea baino heroikoagoa izan daitekeela" bezalakoak.

Zerria ez da bakarrik obra gomen-dagarri bat, literaturaz gozatzeko, literaturaz hazten joateko, literatura zer den eta nola egiten den jakiteko adibide gutziz egokia baita. ●



MUSIKA

Katuek baino ertz gehiago



FELINE

FELINE

FAMILY SPREE RECORDINGS,
2022

IKER BARANDIARAN

Batzuetan elementu asko elkartu behar dira aurreikusi ez duzun emaitza bat ateratzeko. Hori gertatu da nolabait Gernika eta Bermeo artean sortutako Feline taldearekin. Primeros Auxilios punk taldeko Iñaki *Baini*-k etxean elektronikarekin jolas-teari ekin eta maketa batzuk grabatu zituen. Beste musika koordenada batzuetako Ainhoari (Labana, Seda...) eta Rubeni (Audience) kantak erakutsi, eta haiek ukitu berritua eman zieten. Azkenik, Puro Odio taldeko Eneko batu zitzairen.

Guztia jarraian izan da: oinarrizko maketetako kantei buelta bat eman, Capsula taldeko Martin Guevarak Bilbon duen Silver Recordings estudioan hamar kanta grabatu, Family Spree

Recordings zigiluak apustua egin eta zuzenean jotzen hasi. Eta, hara, egiten dutena freskoa da, eta harrera beroa izaten ari da. Ez da kasualitatea “Feline” Stranglers taldearen diskoetako baten izena izatea; nabaritzen da haien arrastoa eta, zalantzarik gabe, teklatuek eta sintetizadoreek pisu nabarmena dute emaitzan, baina harago doaz.

Ezohikoa da gure artean melodiei halako garrantzia emateaz gain, leloak eta koroak modu horretan zaintzea. Horrez gain, estilo entsalada zabala lan-tzen dute, batzuk zein besteak harrapatzen dituen.

Always kantak, esaterako, badu intrigadun new-wavetik, baina baita gitarradun rock-and-rolletik ere. *Zure bidea* dantzagarriagoa da, ahotsak tar-

tekatuz eta garage ukituekin, *hit* bat. *I hate you!* kantaren doinua ere ez da erraz ahaztekoa: erritmo biziagoa dauka, power-poperoa da eta –gehienak bezala– itsaskorra. *The eye* ilunagoa da eta, aldi berean, poperoa. *Too sad* abestiak tartekatzen du ildo Ramonianoa eta baita giro espazialagoa ere. *So alone* kantak salto egiten du popetik garage-ra eta, zergatik ez, americanara. *Emozio*, zu Stranglers taldeak kutsatutako power-popa da. *Looking*, Kalifornian –berezko garai hartan– erditutako pop gema. *Ian eta Myra* Fuzztones, Jotakie eta Ama Say taldeen arteko bakanal indartsua. Eta, borobiltzeko, beste garai batean idatzitako *How do you think it feels* balada newyorktar erraldoiaren irakurketa ederra. ●



Eustetik haustera

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

 KULTURAZ KOOPERATIBA

Ederra lasaitua hartzen dena kortse bat askatzen denean. Hogei bat botoi, bata bestea gehiago estutzen eta arnasa itolarrian. Obra honetako pertsonaiek ez dute, ez, bizkarreko minik, gorputz femeninoak estilizatzeko jantzi dute prenda hau. Tente mantentzen ditu, erortzeko aukerarik ez baitiete ematen euren buruei. Azukrea mendeko bihurtzeraino dastatu dute ohikoa dirudien merienda batean, edo agian, batu eta euren gauzez hitz egitea da benetako adikzioa. Brandy, esango nuke, antzezlanaren nolakotasunaren zaporea dela, absurdoaren garapena, erridikulua dena are patetikoagoa bihurtzeko ahalegina. Eta era berean aktoreen errealtatea islatu nahia.

Fikzioa fikzioaren barruan. *Bridgerton* telesail ospetsuan oinarritu dira obra honetako aktore eta sortzaile diren Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola eta Iraia Elias eta hura parodiatu dute. Pasteltxoek eta teak identitaterik gabeko hiru emakume batu ditu mahaia-

ren bueltan: emakumea I, emakumea II, emakumea III. Ezer interesgarririk ez dute hizketagai, bizpahiru esaldi xalo eta Joshua, hirurek maite duten gizona. Hasi da jolasa: imitazioa, mugimenduen errepikapena, ahotsaren tonu agudoak, ibilera mekanizatuak, postura arraroak eta giroa bihurritu duen hainbat jarrera. Aktoreen arteko konexioak eta interpretazioak arretaz mantendu du ikuslea lehen eszena luze honetan, erritmoa eta musikaltasuna emanez, barrea ahotik ahora kutsatzera helduz. Hiru emakume elegante, politikoki zuzenak izateko saiakerari eusten eta, era berean, gizon bera gustuko dutelako borrokan. Azukre guztia odolean, gehiago ez mahai gainean. Intentsitatea gora, algarak ere bai.

Kontsumitzen dugun fikzioari leku fisikoa eman diote obran, literalki lauki baten barruan eginez interpretazio hori. Lerroa gainditzean, ordea, pertsonaiak desagertzen eta aktoreak azaltzen dira, bizitakoa euren errealtatera ekarri eta,

HIRU KORTSE, AZUKRE ASKO ETA BRANDY GEHIEGI KAMIKAZ KOLEKTIBOA

NOIZ: Irailak 25

NON: Gazteszena (Donostia)

antzezteari utzi gabe, hausnarketara bultzatuz, Kodea hori da. Antzezlanak Kamikaz kolektiboaren zigilua darama garbi, antzerkia eta genero problematika batzen dituen proposamena baita, feminismoaren aldarriak ardatz dituen eta, era berean, antzerki konbentzionalaren mugekin jolasten duena adierazteko moduari dagokionez.

Obrak emakume guztiek identitatea libreki garatzeko beharrari eusten dio, eraikitakoa hautsi nahian. Eraikitako hori erakusteko, ordea, *Bridgerton* gisako goi mailako familia aristokrata bateko emakumeen eredia erabili dute, zeintzuen bizitza ikuspegiak gainontzeko emakumeonganako boterea zein pribilegioak dakartzkien. Konparazioa egozia ote den galdetu diot neure buruari. Mezuak edo problemari aurre egiteko proposamenak ezer berririk kontatzen ez duela iruditu zaidan arren, ezagutzen dituenak zer ikusiko duen badaki, eta aretoa beteta zegoen. ●

Oihane Perea

BERTSOLARIA, IRAKASLEA ETA
KULTUR ERAGILEA



TXAPELKETEI AGUR

“Buruak atsedena eskatzen zidan. Asko nekatzen du urtero txapelketak jokatzek. Ez da sentimendu gozoa estatusa defendatu beharra, eta gazteak gogo handiarekin eta ate-joka datoz. Orain da momentua pauso bat atzera egin, eta besteek egiten dutenarekin gozatzeko. Orain, berjaiotze batean nago, ardurak askatzen eta niri gustatzen eta interesatzen zaizkidan gauzak egiten. Bada garaia, ez? Bereziki musikarekin lagundutako gauzekin nabil. Irakasle gisa ere neure burua birziklatzen nabil, eta ikuspuntu zein metodologia berrieekin gozatzeko. Helduaroan egoskor eta egozentriko bihurtzeko tendentzia dago. Jende eta proposamen berriei ireki behar zaie atea: hori egiten baduzu mugimenduan zaude eta ez zara bertan geldituko, korrontean sartu eta ekarpenak egin ahalko dituzu berriro”.

“Leku batzuetan euskara atzeraka ari den aldi berean, Araban izugarria izan da berreskurapen prozesua”

Euskararen erabilera galtzen ala berreskuratzen ari da? Non begia, han ahoa. Ahobizarririk gabe mintzo da Oihane Perea Perez de Mendiola (1977, Gasteiz) euskalgintzak zein bertsogintzak Arabari emandako bueltaz. 30 urteren ostean bertso txapelketen fokupetik atera berritan, plazen eraldaketaz mintzo da, eta biraka dituen proiektuez ere bai.

✍ IZAR MENDIGUREN COSGAYA 📷 HAIZEA PASTOR

“Merezi duen moduan zaindu ezazue Araba” izan zen finaleko aldarria. Zazpigarren alaba itzalpean dago beti?

Triste da oraindik esan behar izatea. Guk ere izan dugu gutxiagotasun konplexua. Bada egin beharreko beste prozesu bat: autokonfiantzaren lanketa. Dena den, zaindu baino “ezagutu ezazue Araba” esango nuke nik: aurreiritzietatik harago ezagutu beharko litzateke Araba. Baten batek sorpresa hartuko luke datu soziolinguistikoak begiratuta, hiriburuetan zein ezagutza eta erabilera datu dau den ikusita. Leku batzuetan euskara atzeraka ari den aldi berean, Araban izugarria izan da berreskurapen prozesua, datuetan dago hori. Badago zer hausnartu eta zer ikasi.

Zeren ondorio da berreskurapena?

Gure gurasoen egoskorkeriarena eta auzolan izugarriarena. Ez dugu hizkuntza bakarrik jaso Araban, kontzientzia ere bai, hizkuntzarekiko atxikimendua. Horrek eragiten du 17-18 urterekin beste pertsonekin

nola bizi edo erlazionatu aukeratzekoan; arabar gazte euskaldunek kontzientzia hori jaso dute, eta ezin dugu galdu, transmititzen jarraitu behar dugu. Eta, gero, besteen presbiza dago: kontzientzia handia dugu urruneko aferekin, baina parekoa ez dugu ikusten.

Erreferente handia zara Arabako bertsogintzan. Zer jaso zenuen, eta zer utzi duzu?

Babes, maitasun eta bultzada handia. Motxila ere bai: ez dakit hori jaso edo nik hartu nuen [barreak]. Motxila kargatzen joan naiz ametssez, proiektuz eta arduraz. Garai hartan Araban ez zegoen bertso eskolarik ezta kultur plazarik. Gaztetan motxilarekin autobusez zeharkatzen nuen Araba. Oso aberasgarria izan da Arabako errealitateak ezagutzea. Ogi arrasto asko utzi ditugu auzolanean, eta gaur egun hamahiru herritan daude bertso eskolak, urtero 150 ikasle inguru daude kantuan, Arabako Kuadrilla arteko txapelketa dago... Pandemia gainetik pasa arren, bada elikatzen den ekosistema bat.



"Bertsolariak 'betigazteak' gara, etengabe gaudelako plazan jolasten eta jendearekin konektatzen, eta izpiritu bihurria dugulako".

Bertsolaritzak euskarari bidea ireki diola uste duzu?

Erdal eremu asko daude Araban, baina baita hemendik kanpo ere. Euskalduntzat jotzen ditugun herrietan geroz eta erdal eremu gehiago dago. Araban euskararen berreskuratze prozesuarekin batera joan da eskutik helduta bertsolaritza. Hemen euskara desagertu eta sortzen hasi ziren ikastolak, euskaltegiak, kultur ekintzak... Eta bertsoa beti egon da hor presente. 1982an sortu ziren Gasteizko eta Aiarako bertso eskolak. Orduetik, etengabeko elkartrukean egon gara bertsogintza eta euskalgintza. Bertsoak dakarrena da euskaraz bizitzeko gozamen eremua, gazteentzat erakargarria dena; eta hori da guztiz diferentea, orokorrean falta dena baita. Euskaltzale, sortzaile eta gazte izatearen izpiritua da gure katea. Bertsolariak (buruz behintzat) "betigazteak" gara, etengabe gaudelako plazan jolasten eta jendearekin konektatzen, eta izpiritu bihurria dugulako.

Ikusten ez diren zein lan daude bertsolariaren ganbaran?

Bertsolariak bat-batean bertsoa botatzeko kaxoiak beteta izan behar ditu. Bizitakoetatik eta ikusitakoetatik zure pentsamendua eraikitzen zoaz, sorkuntzarako printzak topatzen. Etengabe zaude behatzen edo ideiak sortzen, nahi gabe ere. Sortzaile izatea jarrera da, eman eta jasotzekoa, ohean bezala.


Zeri eta zer kantatzea gustatuko litzaizuke?

Neu amama bertsolaria izatea pila bat gustatuko litzaidake, aktiboa gainera. Nire amama dut gogoan, oso aktiboa zen agureen erresidentzian (antzerkiak antolatzen zituen, koroan parte hartzen zuen...). Ez zekien euskaraz, baina euskal kanta asko bai. Erreferente handia izan da niretzat. Horrela ikusten dut neure burua: bazterrak nahasten, inongo lotsarik eta filtrorik gabe, hortza postizo eta gonga gorriarekin nahi dudana esaten.

'Klimaterioa' estreinatu duzu Laudion. Zer da?

Emakumeen inguruko zikloari buruzko lana da. Klimaterioa edo klimaterioa ziklo amaiera da, sortzeko edo erditzeko aukera galtzen dugun garaia. Ez du errekonozimendurik menopausiara heldu arteko prozesuak, nahiz eta hormonalki eta mentalki oso inportantea izan. Horregatik, Kaitin Allende bakarrizketalariarekin elkartu gara Irati Anda, Iratxe Ibarra eta ni. Helburua da geure buruaz barre egitea, eta aldarrikatzea emakumeok oso produktibo izan gaitezkeela 40-50 urtetik aurrera ere. Are, adin horretatik aurrerako emakumeak dira batez ere euskal kultura kontsumitzen dutenak. Oso aktiboak dira, eta nik miretsi egiten ditut. Klimaterioa oso momentu energetikoa da, biribilgunetik irten eta bide zuzena hartzea bezalakoa. Emakume horiek eszenatokira eraman behar ditugu. ●

BABESLEA:




HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry



Fatxa horrek guk bezala hitz egiten du

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Eta gero azkeneko gauza bat geratuko da egiteko, agian inportanteena: etorkinak, batez ere gazteenak, beraien lurra, sustriai kulturalak eta familia atzean utzita Europan bizimodu hobea bilatzera daramatzaten kausak ezabatzea”. Um, ez dakit non irakurri nuen duela gutxi antzeko zerbait, baina aste honetako artikulua giharrak luzatzeko aukeratu dudana esaldi hau Giorgia Meloniren ahotik aterata zen joan den astean, Montecitorio Jauregian bildutako diputatuen aurrean, Italiako gobernu ultraeskuindar berriaren jendaurreko aurkezpenean.

Herrien, hirien eta nazioen historia zer materialekin egin dagoen interesatzen zaion edonork pasa behar luke Montecitoriotik, turismo pixka bat egiteko baino ez bada ere –tarteka deskantsua hartu behar baita Interneteko foroetan *ad hominem*-ka aritzetik-. Erakinen lehen proiektuak Gian Lorenzo Berniniren sinadura daukela esate hutsa ez da gutxi esatea; eta artista barroko handiak bere garaiko beste erraldoi batekin –Francesco Borromini– izan zuen etsaitasun itsua bera ere ez da aurrekari txarra azken mendean mota guztietako odol gaiztoak ezagutu dituen edifiziorentzat.

Benito Mussolinik Montecitorioko sesio –hitzaren zentzu literalean– parlamentario baten ondoren aipatu omen zuen Giacomo Matteotti diputatu sozialista zirkulaziotik kentzeko kontua. Asuntuak nola bukatu zuen badakigu, eta fatxak berriz ere Italiako nagusi diren honetan, igual esaten ari direnari erreparatzea ez dago soberan, antzeko proposamenak ez egiteko, noski; baina baita konturatzeko zein punturaino daukan findua software berridun eskuin muturrak ezkerreko objektu ideologi-



koen “apropiazio kulturala”, Paolo Gerbaudo ikerlariak azaldu duen moduan.

Aipatutako Meloniren diskurtsoa meategi itzela da fenomeno hori aztertzeke. Esango dizu Italiako lehen emakumezko presidentea bera dela, gero aipatuko dizkizu *Risorgimento*-ko zenbait emakume –Cristina Trivulzio Belgiojoso, Rose Montmasson–; eta Maria Montessori pedagogo; eta Oriana Fallaci kazetaria; eta gauza erdi-egina dauka: Italiaren batasuna, irakasle progre-baina-beti-erikristaua edo azken urteetan zibilizazioen talkaren teoria bere egin zuen kazetaria erabiliz, komeni zaion mitologia atzerakoiaren barruan kokatu du Melonik emakumeen borroka.

Ekologismoarekin, gauza beretik kuartillo eta erdi: “Gure ondare naturala babesteak konprometitzen gaitu, kultura, tradizioak eta espiritualitatearen ondarea babesteak bezala: gure gurasoengandik oinordetzan jaso genituen, gure seme-alabei transmititu ahal izateko”. Esaldiak inuzentea dirudi, baina kolpe bakarrean

planeta honetako bizitzak egun bizi duen mehatxuaren maila berean jartzen ditu italiarren kultura eta tradizioak, baita erlijio katolikoa ere –espiritualtasuna aipatzean ez baita ari Iker Jimenezen programan agertzen diren gauzez–.

Burujabetza diozu? Melonik badauka musika horrekin dantzatzeko zerbait, baina ez, ez du elikadura- edo energia-burujabetza aipatu. Estatua aipatu du. Haren urteetako absentzia. Hiri eta herrietan estatuaren presentzia fisikoa handitzeko apustua egingo dutela... Poliziaren bidez. Ongizate-gizartearen desagerpen progresiboak ezkerrean sortu duen fetitxe estatualista –garai batean iritsi ginen irakurtzera estatua “herriak” sortu zuela, pentsa–, orain eduki ultra-kontserbadorez beteta.

Operazioaren hedadura ikusita, eta aurretik antiglobalismoaren imaginarioarekin zer gertatu den, beldur naiz martxa honetan aurki falangista batek bezala hitz egingo dugula, zentro sozial autogestionatu bateko kideak bezala ari garela. ●

ARGIA EGUTEGIA 2023

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.



+ 5€
bidalketa gastuak.

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

10€

BIZUM bidez ere
ordaindu daiteke.



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

EUSKARAREKIN, GORA ETA GORA BETI!



**GORA▲
GORA▲**

**FEST
2022**

50 ekitaldi baino gehiago,
Nafarroako txoko guztietan,
haur, gaztetxo eta familientzat,
**Euskararen Nazioarteko
Eguna** ospatzeko

Abenduaren 11ra arte

IKUSI EGITARAUA

